

TOKIKOM

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

2012ko urriaren 24a.
324. zenbakia. 24. urtea



Altxerriko koba margoen gordeleku

Aurten bete dira 50 urte Altxerriko koban historiaurreko margoak eta grabatuak aurkitu zituztenetik. Juantxo Agirrek, Aranzadiko idazkari nagusiak, leizea izan du hizpide urteurrenean.

05

Orioko kontuak

Kale Nagusiko etxebizitzak

09

Kirola

Etxeberriaren errekorra

11

Aiako elkarrizketa

Joxe Mari Murua

25

Herritarra

Maria Dolores Urretabizkaia

Nire kontsolamendua

1

Azken inkestak ikusi eta ez dira oso xamurrak, politikuak trakets dabilta salbatzen dira apurrak, denon diruen xahutzaileak gero ta gehio lapurrak, haien mendean gauden guztiok bizi beharko beldurrak..

2

Handikeriak harrotu eta faraoi zarren antzean, obra itzelak *jendia nitaz akordatzeko hiltzean*, dagona bota, berria egin, ez geratzeko atzean, nahiz leporaino zorretan sartu ta kutxa utzi hutsean.

3

Beren soldata beraiek jarri, legeak ere neurrira, mila kargotan enpliatzeko lagunak beti badira, garbiago ta txukunagorik, munduan bada zingira, gure kontura haien lepoak ederki loditu dira.

4

Politikua, bankerua ta kañoi hotsaren danbarra, haien menpean bizi beharrak sortzen dit neri negarra. Inolaz ere aldatu ezinik betiko istori zarra, bertso-sorta hau idazten daukat kontsolamendu bakarra.

324

karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea
20810 Orio
943 831 527
karkara@karkara.com
www.karkara.com

Editorea

Karkara taldea
kultur elkarte

Zuzendaria

Lore Berasaluze

Erredakzio taldea

Irati Agirreazaldegia,
Onintza Aiestaran,
Iñigo Gaiton,
Iker Gurrutxaga,
Eli Lasa
eta Idurre Lizarralde

Publizitatea

Iker Gurrutxaga

Publizitatearen diseinua

Iker Gurrutxaga

Testuen zuzenketa

Elizabete Manterola,
Joseba Orella
eta Rikardo Uzkudun

Ale honetako laguntzaileak

Xabier Ibarguren,
Marijo Manterola,
Imanol Urkizu
eta Nikolas Zendoia

Laguntzaileak

Iñaki Iturain

Diseinua

Danel Agirre
eta Karkara taldea

Banatzaileak

Kattalin Bollain eta
Esti Uranga (Orioko)
Eli Irureta (Aia)

Inprimategia

Gertu Koop. E. (Orioko)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 ale

KARKARAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.



PUBLIZITATE PREZIOAK

Iragarkia alero jarrita

Modulu bat	12,00 €
Bi modulu	24,00 €
Hiru modulu	36,00 €
Lau modulu	48,00 €
Sei modulu	72,00 €
Zortzi modulu	96,00 €
Orrialde erdia	120,00 €
Orrialde osoa	204,00 €

Iragarkia behin jarrita

Modulu bat	16,00 €
Bi modulu	31,00 €
Hiru modulu	47,00 €
Lau modulu	64,00 €
Sei modulu	95,00 €
Zortzi modulu	127,00 €
Orrialde erdia	174,00 €
Orrialde osoa	306,00 €

Publizitatea kontratatzeko

Iker Gurrutxagarekin hitz egin
(943 831 527) edo
karkara@karkara.com
Prezio hauei BEZA gehituko zaie

LAGUNTZAILEAK



EUSKO JAURLARITZA

Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabidea

Harrituta

EAJk hauteskundeetarako propaganda-ekin batera zabaldu zuen idatziari buruz gauza asko esan beharko lirateke. Hasteko, errespetu falta izugarria eta iraina da EA alderdiari buruz esanda-koa: *EAK ez baitu ezer esatekorik*, Bildun, adierazi nahi dute, noski.

Egiteko modua ere, aipagarria da: eskutitz hori hausnarketa eguna baino bi egun lehenago banatu zuten; erantzuteko aukerarik ez, eta Eusko Legebiltzarreko hauteskundeekin zerikusirik ere ez zuena, Aiako herriari eta Udalari buruzkoa baizik.

Baina eduki guztien artean gauza batek kezkatu ninduen batez ere, eta bideratu ezinik nabil sortu zidan zalantza. Azken paragrafoaren azken esaldiak honako hau zioen: *... beti bezala, kanpotarrek agintzen baitute Aiako Ezker Abertzalean*

Ez zait garbi geratu noren gainean ari den idazle anonimo hori kanpotar hitza erabiltzen duenean. Aian bizi ez diren Ezker Abertzalekoak? Alegia, Ezker Abertzalean garrantzia eta pisua dituzten pertsonak baina Aian bizi ez direnak? Horrela baldin bada, eta argudio bera erabiliz, ezin al da gauza bera esan eta arrazoi handiagoarekin EAJ alderdiaz?

Oso bestelako gauza da *kanpotar* hitzari beste esanahi batzuk eman nahi baltzaizkio: *surluze, sarkina, fio izatekorik ez dena*... Orduan, haien ustez nortzuk diren kanpotar horiek jakitea gustatuko litzaidake. Aian bizi baina Aiakoak ez direnak eta Bilduren alde lan egiten dutenak? edo azken urte hauetan Aiara bizitzera etorri direnak eta EAJri botoa ematen ez diotenak?

Bukatzeo, kanpotarrei dagokionez, norberak bere iritzia eta sentimendua izatea libre da, noski, eta alde horretatik ez dago ezer esaterik. Baina harritzen nau, XXI. mende honetan, alderdi batek *kanpotar* hitza erabiltzea gutxieteko zentzuarekin, boto gehiago lortzeko asmoz. Nire ustez, pentsaera atzerakoia- ren seinale da eta nahiko kezkarria iruditzen zait. ■ **Otilia Otxoa.**

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAra bidal daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (kultur etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko ize- nik gabe datorren gutunik. Egile- ak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda. Gutu- nean norbait aipatzen baldin bada eta norbait horrek gutuna- ren egilea nor den jakin nahi badu, KARKARAK esan egingo dio. KARKARAK bere egiten du esku- titzak laburtzeko eskubidea.

Eskerrik asko oriotarrei

Orioko EAJk eskerrak eman nahi dizkie oriotarrei.

Eusko Legebiltzarreko izan diren hauteskunde hauetan oriotarren gehiengoak berriro ere babesa eman digu. EAJk egiten duen, eta egingo duen lanari konfiantza diola esan du herria- ren gehiengo handi batek, %48ak, hain zuzen ere.

Berriz ere, Orion lehen indarra EAJ izan da, 1.302 bozkarekin.

Mila esker babesa eman diguzuen guztiei. Ilusioz, gogotsu eta arduraz la- nean jarraituko dugu. Hitza ematen dugu! ■ **Orioko EAJ.**

Bertso astea hasita

Aste honetan aurrera doan bertso astea- rekin hasi dugu ikasturte berria. Ba- tzuek jakingo duzuen bezala, Orion hasi eta Aian bukatuko da bertso astea.

Larunbatarekin Galtzagorriei To! Inaxito bertso antzerkia izango da Aiako frontoian, arratsaldeko 17:00an, eta gauean 21:30ean bertso afaria Alkar so- zidadean Martin Rezabal Olaso, Aitzol Barandiaran eta Anjel Larrañagarekin.

Larunbat eguerdira arte, txartelak salgai egongo dira Iturriozena eta Loretxu ta- bernetan, 18 euroren truke, garaiz zabil- tzate!

Baina horretaz gain, jakinarazi nahi dizuegu, datorren hilean jarriko dala martxan bertso eskola. Azaroaren 8an hasiko gara, eta ostegunero ostegunero 19:30etik 21:00etara bertsoan arituko gara Kosta Tailerretako lokalean, Orion.

Beraz, badakizue, bertsoan aritzeko gogoz zaudeten aiar eta oriotarrak aza- roaren 8an bertara azaldu besterik ez duzue, zain gauzkazue! ■ **Errikotxia ber- tsozaleen taldea.**

Dikeko zangak

Dikeko parketik Anibarko Porturako bi- dea erreka ondotik egiten dugu askotan, sarri bizikletaz.

Noizbehinka zanga bat edo beste egi- ten dute zeramika fabrikaren pare ho- rretan. Azkena orain dela urtebete pasa- txo egin zuten eta gaur egun, oraindik, estali gabe dago, gure kaltetan, noski.

Anibarko Portuko bizilagun batzuk proposamen hau egin nahi diogu Udala- ri: hilabetean estali ezean auzolanean egiteko prest gaude galipota emanez gero. Izan ere, galipota zutenean estali- ko zutela esan ziguten. Beraz, bitartean galipotaren zain gaituzue, estali gabeko zangan trabatuta inor eroriko ez delako- an. ■ **Anibarko Portuko bizilagun batzuk.**

Karkara lagundu nahi dut: Karkara aldizkariaren laguntzaille izan nahi dut eta prest nago Karkarari urteko 35 euroko laguntza emateko.

Izen deiturak:.....

Helbidea:.....

Herria:..... Posta kodea:..... Tel.:.....

Kontu korronteko zenbakia:



Aparkalekuko eta plazako lanak aurreratuta daude, baina etxebizitzaren eraikina oraindik altxatzen hasteko dago. KARKARA

Salmenta librekoak izango dira Kale Nagusiko 25 etxebizitza berrietako 19

Eskatzaileen kopurua eskainitako etxeena baino askoz ere txikiagoa izan da. Ondorioz, tasatutako etxebizitzak izatetik salmenta librekoak izatera pasatzea adostu dute *Lurra* eta Udalak.

Kale Nagusiko sustapen pribatuko 25 udal etxebizitza tasatu adjudikatzen zozketa publikoari dagokion prozedura indargabetzea onartu du Orioko Udalak. Horixe jakinarazi du irailean, albistea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

Goiko Kalen egiten ari diren etxebizitza horiek erosteko eskaera eskaintza baino txikiagoa izan da, eta aurreikuspenak bete gabe geratu dira. Aurreko ikasturtean egin ziren etxebizitzaren zozketak eta haien adjudikazioak, baina horietatik portzentaje txiki bat baino ez da agertu aurreikusitako salerosketa-kontratuak sinatzeko prest.

Orioko Udalararen eta *Lurra Promoción y Gestión SL* enpresaren ustez, egoera latza da, hasitako lanak, aurreikusitako etxebizitza-erakinak eta inguruko urbanizazio-lanak behar bezala ez bukatzeko arriskua dagoela ikusten dute-eta. Hori dela eta, bi aldeei komeni zaien erara jarri dituzte baldintza berriak, bi hel-

buru horiek bete ahal izateko. Horretarako, bere garaian sinatu zuten hitzarmen urbanistikoa aldatzea adostu dute.

Egoera berria

Hainbat puntutan banatu dute Udalak eta *Lurra* enpresak hitzarmen berria. Horietatik lehenengoa, 2010eko ekainaren 4an sinatutako hitzarmen urbanistikoaren 3. akordia aldatzea da. Hortaz, Orioko Udalak 2011ko maiatzaren 17an emandako Araubide Orokorreko Udal Etxebizitza Tasatu kalifikazioa kendu egingo dio Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren 3. hirigintza-jarduketaren etxebizitza-erakinaren sustapenari. Kalifikazio hori bera kendu diete, dagoeneko, etxebizitzetara.

Kalifikazioa kentzeak lursail horretan egingo diren etxebizitza eta garajeek, salbuespenak salbuespen, merkatu libreko etxebizitza izatera izango dutela esan nahi du. Hala ere, etxebizitza eta garaje horien salmenta-prezioa lehengo bera

izango da; hau da, Orioko udalerrian gaur egun indarrean dagoen Babes Ofizialeko Etxebizitza moduluari 1,87ko koefizientea aplikatuz ateratzen dena.

Salbuetsitako sei etxebizitzek eutsi egingo diote gaur egun duten udal etxebizitza tasatu kalifikazioari: salmenta-prezioa jaitsi egingo da, Orion indarrean dagoen Babes Ofizialeko Etxebizitza moduluari 1,67ko koefizientea aplikatzearen ondorioz.

2008an hasitako plana

Duela lau urte, hau da, 2008an hasi ziren Kale Nagusiko plan bereziarekin lanean, Goiko Kale indartzeko jomugarekin. Urte hartako uztailearen 24an, behin betikoz onartu zen Orioko Kasko Historikoa Birgaitzeko Plan Bereziaren Testu Bategina. Planteamendu horretan aurreikusitako hirigintza-jarduketaren artean dago 3. hirigintza-erakina ere, Kale Nagusiko 25, 27 eta 29 eraikinak eta horien atzeko aldea hartzen dituenak.

Hala, lanak bukatzean, alde zaharreko iparreko mugako –Lizargate berri inguruko– oinezkoen pasealekuak jarraipena izango luke, eta plaza berri bat izango litzateke aparkalekuen gainean.



Aurten ere ez da aizkolaririk faltako Ortzaiako aparkalekuan. KARKARA

Azaroaren 9an hasiko dira aurten sanmartinak

Ate joka datoz Ortzaiakara sanmartinak. Ostiralarekin, hasiko dira festak mutil ardoko afaria eginda, eta hilaren 30ean, bukatuko dituzte auzo-festak oilasko biltzaileen afaria eta gero

Azaroko bigarren eta hirugarren asteburuetan eta azken ostiralean izango dira aurtengo San Martin festak Ortzaiak inguruan. San Martin eguna, azaroaren 11, igandea izanik, bi egun lehenago hasiko dituzte jaiak aurtengoan.

Azaroaren 10erako kantu afaria antolatu dute auzotarrek. Sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko, Aterpe tabernan eta Oliden jatetxean. Aurten, ez da bertso afaririk izango, baina ordainetan, erromeria-afaria izango da azaroaren 17an. Afaritarako txartelak ere aipatutako bi lekuetan izango dira salgai. Erromeriari dagokionez, Loretxu Berbena Belarra taldea izango da festazaleak dantzan jartzeko ardura izango duena.

Gainontzean, herri kirolen erakustaldiak, auzo-bazkaria, hamaiketakoa, meza, antzerkia eta, urtero bezala, oilasko biltzea izango dira sanmartinetako programan.

Festak goxo-goxo eta tripa berdinduta bukatzeko, oilasko biltzen ibilitakoen afari ederra izango dute azaroaren 30ean, ostiralarekin.

FESTA-PROGRAMA

Azaroak 9, ostirala

21:00 Mutil ardoko afaria

Azaroak 10, larunbata

21:00 Kantu afaria

Azaroak 11, igandea

10:30 Meza

Ondoren Toka eta sagar-biltzea

Segidan Hamaiketakoa Patxi Etxeberria eta Egoitz Eizagirre bertsolariekin

17:00 Aizkolaria eta harri-jasotzaileak

Azaroak 16, ostirala

22:00 Mus txapelketa

Azaroak 17, larunbata

06:00 Oilasko biltzea

17:30 *Bikokote* antzerkia haurrentzat

21:00 Erromeri-afaria *Loretxu Berbena*

Belarra taldearekin

Azaroak 18, igandea

12:00 Herri kirolak *Heldu!*-koen eskutik

Ondoren Bailarako bazkaria Jagoba eta

Maialen trikitilariarekin

Azaroak 30, ostirala

21:00 Oilasko biltzeko afaria

LABUR

Politika

EAJk jaso du botoirik gehien

EAJ izan da Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeetan Orion boto gehien jaso duen alderdia: botoen %48a lortu du, 1302 boto, hain zuzen ere. Dena den, 2009an boto portzentaje handiagoa lortu zuen: %60. EH Bildu izan da bigarren indarra 1030 botorekin -botoen %38 eskuratuta-. PSE-EEK, berriz, 175 bozka jaso ditu -ehuneko %6a-. Parte-hartzea %68koa izan da guztira eta abstentzioa %32koa.

Kultura

Bertso-astea antolatu dute

Orioko Errikotxia bertsozaleen taldeak bertso-astea antolatu du urriaren 24tik 27ra. Jon Sarasua zen urriaren 24ko lehen saioa eskaintzekoa. *Leterekin kantuberbetan* izeneko kantaldi mintzatuaz izatekoa zen Sarasuarena. Hilaren 26an izango da segidakoa, gaueko 23:00etan, Kalakari tabernan: Nafarroako eta Orioko bertsolarien arteko desafioa izango da. Urriaren 27an, 17:00etan, Aiako frontoian, *Galtzagorriei to, Iñaxito!* antzerkia izango da eta, gauean, 21:30ean, bertso afaria egingo dute aiako Alkar elkarteak.

Euskara

Bi talde ari dira euskaltegian

Urtero bezala, euskara ikasteko ikastaroak antolatu ditu aurten ere Orioko Udaleko Euskara Batzordeak, Urola Kostako AEKrekin elkarlanean. Aspaldiko partez, bi talde osatu dira aurten, gainera: Euskalduntze 0 mailakoa, euskaraz ikasten hasi nahi dutenentzat; eta Alfa-EGA mailakoa, alfabetatu eta EGA titulua ateratzeko asmoa dutenentzat. Bi taldeak, Euskalduntze 0 eta Alfabetatze-Ega, txikiak direla-eta -7 bat lagunekoak-, ikastaroetan izena emateko aukera zabaldu dute antolatzaileek. Eskola egunean Ikastolara azaldu besterik ez da egin behar borretarako. Udaleko Euskara Zerbitzuan ere eman daiteke izena.

Eliza

Artzapez izendatu dute apaiza

Gipuzkoako gotzaindegiak artzapez izendatu du Unai Manterola Orioko apaiza, urriaren hasieran. Erabakia inguruko herrietako apaizek hartu zuten, eta Jose Inazio Munillak onespina eman duenean jaso du izendapena. Hala, Orio, Aia, Getaria, Zarautz, Zumaia eta Aizarnabalgo artzapeza izango da Unai Manterola. Gotzainaren azpitik dagoen kargua da artzapezarena elizako hierarkian.

Arraina ontzietan jasotzeko eta olio biltzeko kanpainak abian dira

Autokonpostatzearen eta auzokonpostaren inguruko hitzaldia eta tailerra egingo ditu Zero Zabor taldeak ingurumena zaintzearen harira eta ahalik eta zabor gutxien sortze aldera

Hainbat ekimen jarri dituzte abian Orion eta Aian ahalik eta zabor gutxien sortzeko, ezinbestean sortzen den hori birziklatzeko eta ingurumena zaintzeko asmoz eta helburuz.

Alde batetik, Urola Kostako Udal Elkarteak sukaldean erabilitako olio gaika biltzen duenez, olio horren birziklatzea sustatzeko kanpaina egingo du Ekograsekin batera. Olio bio-diesela egiteko lehengaia izanik, garrantzia handia du gaika biltzeak. Gainera, bildu ezan zabortegira edo arraskatik behera botatzen da, eta kutsadura eta saneamendu arazoak sortzen dira.

Olio gaika biltzea sustatu ez ezik, horrela egiten duten eskualdeko herritarren ahalegina saritu egingo dute. Etxez etxe banatutako informazio esku orriarekin batera, 12 pegatina banatu dituzte dagoeneko. Olio zaharra gordetzen den potoari itsatsi behar zaio, izen-abizenak eta telefonoa idatzita; eta dagokion edukiontzira bota. Eskualdeko jate txerren batean bi lagunentzako bina otordu zozketatuko dituzte hilero. Bide batez, jate txeeek olio gaika biltzen egiten duten ahalegina ere eskertu nahi dute.

Arraina ontzietan

Arrandegietan paper eta plastikozko poltsak murrizteko, *Ontziratuz zaitez!* kanpaina abiatuko dute Urola Kostako Udal Elkarteak, eskualdeko udalek, Kutxa Ekoguneak eta 23 arrandegik - Orion Lourdes, Carmen eta Txomin; Aian, Karlos -. Erosketak egiterakoan ontzi edo *tuperrak* erabiltzea bultzatu nahi da horrela. Erosleentzat erosoagoa izateaz gain, ingurumenaren onerako izango da.

Ontzi berrerabilgarriak banatuko dituzte azaroan horretarako: Aiako pla-



Erosleek eraman beharko dute ontzia arrandegira arraina bertan sartzeko. KARKARA

zan, 5ean: 11:00etatik 13:00etara eta 8an, 16:00etatik 18:00etara. Orion, 6an: 16:30etik 19:30era eta 8an, 09:00etatik 13:00etara, Herriko Plazan.

Zozketa txartela emango diote erosketak ontzia erabiliz egiten dituenari, eta herritarren portaera egokia saritzeko arrandegi bakoitzak hilero 30 euroko erosketa-balea zozketatuko du.

Konpostatzea

Orio Zero Zabor taldeak ere bere filsofiaren aldeko ekimenekin jarraituko du: urriaren 30ean, autokonpostatzeari eta auzokonpostari buruzko hitzaldia eta

tailerra egingo ditu Kultur Etxean, 18:00etan hasita. Gaian interesa duen edonor gonbidatu du taldeak saiora.

Orion 50 familiak autokonposta egin baietz erronkari heldu nahi dio taldeak. Horretarako hainbat txokotan autokonpostagailua jartzeko proposamena egin dute eta proiektu horretan parte hartuko duten herritarrak prestatu nahi ditu.

Autokonposta ondo egiteko segi beharreko oinarrizko arauak zein diren azalduko dira, tailerrean, besteak beste.

Tailer horietan konposta nola egin ez ezik, autokonpostarako ontzia bi egurrekin egiten ere erakutsiko dute.

ITZIAR
kirolak
Tel. 943 83 31 03

HIRUTASUN ESENTZIAK®
BAT IZATZAREN METODOA®

"... beraplan, nor zaren ikusia galarazten diruten orfitzpoen sorburua eta egonkortasuna lortzeko jarraitu beharrekotik bidea lantzen ditut mala guztietan!"

- Hirutasun Esentziak®
- Eskuen ezartzea
- Oreak energetikoa

Irkus Fernandez
FUNTSIZKO TERAPISTA
Tel: 655 726 291

INDO
Garraio frigorifikoa
NAZIONALA ETA NAZIOARTEKOA

Olaskoegia, 12 - Tel. 943 894 024 - Fax. 943 130 144 AIA-ORIO

Marka berria jarri du Idoia Etxeberria oriotarrak 150 kiloko harria jasota



Etxeberria errekorra egin zuen unean. J.M. PEMÁN

Aurretik 140 kilokoarekin jarrita zuen marka hobetu du, eta emakume harri-jasotzaile batek sekula altxa duen harririk astunena izan da urriaren 20an Victoria Eugenia jasotakoa

Harri-jasotzeari eta harri-jasotzaileei omenaldia eginez, *Harria* jaialdia izan zen larunbatean Donostiako Victoria Eugenia antzokian. Harri-jasotzaileak izan ziren protagonista –Aimar Irigoienek, Idoia Etxeberriak eta Urdax Magunazelaia hiru marka egin zituzten– baina, aldi berean, Oreka TX eta Amaren Alabak musikariaren doinuekin dantza egin zuten Kukai konpainiakok.

Idoia Etxeberriak, 19 urteko harri-jasotzaile oriotarrak, 150 kiloko harriarekin neurtu zituen indarrak, aurrez beste emakume batek egin gabeko apustua eginda. Aurretik 120 kilokoarekin beroretak egin, eta bost minutuan 150 kiloko harria behin altxatzea zen bere erronka. Baina batekin nahikoa ez, eta lau aldiz berdindu zuen harria ikusleen txalo zaparraden artean, bere pozarekin antzokia betez. Iñaki Oliden oriotarrak ere omenaldia jaso zuen Victoria Eugenia, harria jasotzen ibili zen garaiengatik.

Prestaketa gogorra

Urte zaila izan da Idoia Etxeberriarentzat. Urtebete egon da harririk jaso gabe. Maiatzaren 15ean hasi zen berriz ere harriari kolpe egiten, baina iazko maiatzaren 15etik gimnasioko lana baino ezin izan du egin Etxeberriak.

Medikuek esan ziotenez, jaiotzetik bizkar hezurreko orno batean arazoak ditu eta harria jasotzerakoan hezurrik sufritu egiten du. Hori dela eta, gerria indartzeko ariketak, abdominalak eta abar egin behar izan ditu hezurreko higadurarik ez izateko.

Ondorioz, hileroko jarraipena eginaz, gimnasioko ariketekin eta errehabilitazioarekin bere onera itzuli arteko lana egin du harri-jasotzaile oriotarrak.

Urriaren 20an Victoria Eugeniako marka jarri aurretik, berea zuen errekorra Etxeberriak, 140 kilokoarekin. Gaur egun ez dago beste emakume harri-jasotzaileirik, bakarra da Etxeberria.

LABUR

Mendia

Erlora irteera urriaren 28an

Izarraitzera irteera antolatuta dute Etxeluzeko gaztetxeek. Irteerako hitzordua urriaren 28an, igandearekin, goizeko 08:00etan, Herriko Plazan izango da. Trenetxe eta ondoren autobusez joango dira Zestoara, eta handik Erloko gainera oinez igoko dira. Egunpasa egingo dute eta arratsaldean itzuliko dira Oriara. Irteera hau antolatuta, gazteen arteko mendizaletasuna bultzatu nahi dute.

Giza proba

Hirugarren Gipuzkoakoan

Urriaren 14an jokatu zen Gipuzkoako giza proba txapelketa Zizurkilgo probalekuan, eta Orioko taldea ere bertan izan zen lehiatzen. Berrobiko zortzikoteak irabazi zuen txapelketa, 950 kiloko harriari tiraka 81 plaza egin eta gero. Plaza kopuru bera egin zuen Urretxuko taldeak, baina bigarren izan zen metro gutxiren aldeagatik. Oriotarrek zorte txarra izan zuten, eta haien txanda iritsi zenean euria hasi zen. Irrist egiten zuten, eta ondorioz, ez ziren nahi bezain gustura aritu. Hirugarren izan ziren 79 plaza beteta.

Atletismoa

Behobiarako autobusa

Azaroaren 11n, San Martin egunean, izango da aurtengo Behobiatik Donostiarako lasterketa. Azken urteetan bezala, aiar eta oriotar askok eman dute izena probarako eta Juan Angel Garmendia lasterkariarentzat autobusa antolatzen ari da. Probara autobusean gerturatu nahi duenak, kiroldegian, arratsaldean, Garmendiagatik galdu eta harekin jarri behar da hartu-emanetan ahalik eta azkarren. Gainontzean, urriaren 21ean, 15 kilometroko Donostiako proban, Imanol Zabaleta izan zen oriotar azkarrena 57:14ko denborarekin.

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria
finka administratzailea
gestoria
empresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ondo 4, behe. 20810 Orto



“Itxura ona eman nahi dugu, ez dugu itsu-itsuan lehiatu nahi”

Ainhoa Usandizaga eta Olatz Zuloaga

Plaieroetako jokalariaik

Sonia Alonsok duela bi denboraldi jokalaria onenaren saria jaso zuenetik ez da talde oriotarrik izan Zarauzko plaieroetan. Ainhoa Usandizaga eta Nerea Zuloaga aurten han izango dira, Orioko nesken taldea osatu baitute berriz ere Xixarioren izenean

IKER GURRUTXAGA

Urtebetez ez da Orioko talderik izan Zarauzko plaieroetan. Aurten, neska talde bat elkartu eta Xixarioren izenean arituko da, berriz ere.

Nondik nor sortu zitzaizuen ideia?

Olatz: Batzuk zelaiko futboleant jokatzeari utzi nahi genion eta jakin genuenean ez zegoela plaieroetako talderik, bada, osatzen hasi ginen. Horretarako, utzi nahi genuenak, aurretik utzita zeudenekin hitz egin genuen eta taldea osatzeko beste ginela ikusita, aurrera egin genuen. Aurretik Xixariokoak izan zirenez taldearen babesle, bada, guk ere hara jo genuen eta prest agertu ziren.

Nolatan eman duzue zelai handitik hondartzarako saltoa?

O: Ez ginen nahi beste jokalaria elkartzen

taldeak lana txukun egin ahal izateko. Futboleant 11 jokalaria behar dira zelaian eta gu ozta-ozta iristen ginen hamabost izatera partida gehienetan. Gaztetxo pila bat ere bazeudenez, haiei erreleboa emateko garaia ere bazela uste genuen.

Ainhoa: Adinak zerikusia izan du. Lehia alde batera laga eta ondo pasatzeko bidea hartzen duzu behin adin batetik aurrera. Lana, ikasketak... askorentzat muga garrantzitsua dira seriotasunez futboleant aritzeko eta, azkenean albo batetara uzten duzu. Ondorioz, kirol pixka bat egiten jarraitu nahi genuen, eta, ahal zela, futboleant. Horregatik jo dugu plaieroetara.

Zenbat zarete taldean?

A: Hamabost lagun inguru elkartu gara. Denak futbol zelaian Orioko taldeant aritutakoak. Gazteenek 16 urte dituzte eta

zaharrenak 31 urte ditu.

Taldearen izaera, hortaz, lagun koadri-larena da, ezta?

O: Bai, hori esan daiteke. Lehen esan bezala, aurretik futboleant aritutakoak gara eta handik ezagutzen dugu elkar. Harreman polita izan dugu batzuk besteekin eta hortik atera zen ideia.

Asteburuan hasiko duzue liga. Zer aurreikusten duzue?

O: Bada, esan digutenez aurkari gogorra tokatu zaigu lehen jardunaldian: aurreko urteko txapeldunak, Getariako taldea. Horrek errespetua ematen du, baina gu ere urte askotan elkarrekin aritu garen jokalariaik gara. Ondo pasatzea da gure helburua, nahiz eta ez den denborapasa soila. Itxura ona eman nahi dugu, ez dugu itsu-itsuan lehiatu nahi, ezta joko eskasa egin ere.

“Lehia alde batera laga eta ondo pasatzeko bidea hartzen duzu behin adin batetik aurrera. Lana, ikasketak... askorentzat muga dira”

“Laguntza garrantzitsua da Xixariorena guretzako eta nolabait ere eskertu nahi diogu. Ea garaikurren bat ekartzeko moduan garen”

Igande goizetan jokatzea gogorra izango da halako talde gazte batentzat.

O: Bada, bai. Lehenengo partida igande honetan, goizeko 08:15ean daukagu gainera, eta, hori jakin genuenean, gogorra egin zitzaigun. Horrez gain, zelaiaik markatzea ere guri tokatu zaigu lehenengo jardunaldi honetan, eta, ondorioz, goizeko 7:00etarako egon beharra daukagu Zarauzko hondartzan.

A: Ez gara hasiko inori parrandak mugatzen. Konpromisoa hartzen badugu eta partidetara itxuraz agertzen bagara, nahikoa dela pentsatzen dugu.

Helbururik jarri al diozue zuen buruari?

O: Bada, egia esanda ez. Xixariori kopa ekarriko geniola agindu genion. Merezki duela uste baitugu. Guk taldearen izenematea kostatzen zena eskatu genion eta berak kamisetak eta guzti egin dizkiugu. Laguntza garrantzitsua da hori guretzako eta nolabait ere eskertu nahi diogu. Ea garaikurren bat ekartzeko moduan garen.



KARKARA



KARKARA

“Akats bategatik gure familian batzuk Ubegun dira Huegunen ordez”

Joxe Mari Murua Goñi Huegun

Huegun abizenaren inguruko azterketaren egilea

Huegun, Ubegun, Huegon ala Uregon? Abizen baten inguruan sortutako nahastetik dator galdera hori. Erantzun asmoz, hirugarren abizena Huegun duen Joxe Mari Murua Goñik azterketa bat egin du zuzena zein den argitzeko.

IRATIAGIRREAZALDEGI

Familiako gehienek Huegun zuten abizena; Joxe Mariren lehengusu batek, aldiz, Ubegun. Hark bere ondorengoei ere halaxe eman die. Besteak beste, senideen eskelei erreparatuta jakin zuen hori. Horren arrazoia edo jatorria zein zen jakin asmoz ikertzen hasi, eta gustura egin duen txosten bat osatu du Muruak. Zerrenda hutsa aurkeztu baino nahiago izan du euskaltzale izaera erakutsiz, lan sakon bat egitea euskaraz.

Nola bururatu zitzaizun Huegun abizenaren inguruko ikerketa egitea?

Nire aurrekoen eskelak hartu ditut oinarriri bezala. Bertan, argi eta garbi ikusi dut senideen abizenak ez zetozeela bat: batzuek Ubegun eta besteek Huegun zutela abizena. Aspaldian sortu zitzaidan kezka hori: zergatik ote da horrela?

Lehengusu batek esan zidan Murua abizenari buruzko ikerketa egitekoa zela eta ea lagunduko nion. Elizbarrutiko artxiboan elkartu ginen, eta iruditu zitzaidan orduan izan zitekeela unerik ego-

kiena Ubegun eta Huegunen artean zegoen nahastearen zalantza argitzeko.

Nola egin duzu ikerketa?

Eskelak jaso eta begiratu ditut, baina batik batik Elizbarrutiko artxiboan jaiotza agiri guztiak begiratu ditut. Gainera, orain, agiriak mikrofilmatuta daude, ikusteko oso modu egokian. Aspaldi hasi nintzen lanarekin, baina gero Euskera-zaintza elkarteko kontuekin lanpetuta ibili nintzenez, ikerketa alboratuta izan nuen; ez, ordea, ahaztuta, eta berriz ekin ez ezik, amaitu ere egin dut.

Argitu al duzu zerbait?

Gure aitaren anaia gazteenak, osaba Manuelek, beren abizena Ubegun zela esaten zuen; beste anaiek ezetz, Huegun, eta elizak esaten zuenari kasu egin behar zitzaioela zuzena zein zen jakiteko. Arrazoia bi aldeek zutela ikusi dut nik.

Orion idazkari batek egindako akatsa da gure familiako batzuek Ubegun abizena erabiltzearen arrazoia. Osaba Manuel Orion jaioa zen, eta haren jaiotza agirian ikusten da nola Aiatik Oriora etorritako bere amaren abizena Huegun izan arren, Ubegun idatzi zutela; ondorioz, bere agiri guztietan ere hala izan zen. Orion ezkondu zen izebari ere ezkontza agirian berekin idatzi zioten.

Nik uste dut akats horren arrazoia ahoz esandakoa gaizki ulertzea izan daitekeela, orduan entzun bezala idazten baitzen. Askotan hitzak ez ditugu esaten irakurritako modu berean, beste azentu batekin baizik, eta gurean Ubegun ere

esaten zuten batzuek. Baina azterketan idatzizkoari erreparatu diot.

Beste aldaketarik ere badago, ezta?

Bai, hala da, 1600. gizaldiko denak Huegon dira. Hori ahoskera kontua dela uste dut, baina zuzena zein den jakiteko etimologiara jo beharko litzateke. Atzera egin behar da; 1634ra arteko agiriak ikusi nituen nik, aurreko liburuak ez baitaude, ustez frantsesek erre zituztelako.

Abizenaren jatorria baina, Aiakoa da?

Isaac Lopez Mendizabalek *Etimologia de apellidos vascos* liburuan Oiartzungo abizena dela dio, baina nik Elizbarrutiko artxiboa arakatuta erreferentziarik zaharrenetarikoa Aian ikusi nuen. Kontuan hartuta familiako asko Oriora joan zirela, itsasora, Orioko agiritara ere jo nuen, eta han 1602ko jaiotza agiri bat aurkitu nuen; beraz, argi dut Oiartzunen baino antzinagokoa dela Aian abizena.

Ubegun auzoa ere badago Aian, ba al du zuen abizenarekin zerikusirik?

Ubegun auzoan Ubegun baserria ere badago, baina horrek ez du esan nahi zuzen idatzia denik. Euskal Herrian, gehiengotan, abizenaren jatorria herria eta etxearen izena da. Beraz nik pentsatu nuen Ubegunena gure familiako okerra izanik Huegun izango zela baserriaren izena, baita gure abizenaren jatorria ere. Ubegun baserri izena izanik, zuzena balitz, gaur egun hedatuago behar luke, batez ere Aian.

Horren harira jatorria beste nonbaitek ote zetorren ere pentsatu nuen. Agiritan zaharrena Huegon izanik, hizkia erori eta Uregon ote zen. Izan ere, gaur egun Ubegun baserria dagoen bailaran Ubegun erreka dago, eta erreken izenak baserrienen aurrekoak izan ohi dira. Ubegun erreka Ori ibaiaren adartxo da, lehorrera sartzen dena ur geldituz, uregona, alegia. Beraz, baliteke baserria eraiki zenean izen hori hartzea eta gero ahoskeraren eraginez Uegonetik Ubegunera pasatzea. Hala ere, hori egiaztatzeke ez dut agiritik, nire uste apala baino ez da.

Inoiz pentsatu al duzue familian abizenaren aldaketarik egitea?

Nik Huegun hirugarren abizena dut eta Aiako lehengusuek lehena, baina akats txiki bategatik aldaketak egitea ez da beharrezkoa. Gainera, zaila izango litzateke, eta lehengoari jarraituko diogu. Kultura aldetik, jakin-mina asetzeko eta bitxikeria gisa abizenaren nahasteen nondik norakoak jakitea ongi dago, baina Ubegun horrenbeste urtetan erabili duten senideek ez dute orain aldatuko. Izugarritzko saltsa sortzea izango litzateke hori.



Iazko antolatzaile eta irabazleak idi-proben sari banaketan, alkatearekin. IBON ERRAZU

Maila ona espero dute Kintopeko idi probetan

Urriaren 31n hasi eta azaroaren 5era bitartean arituko dira lehian Aiako probalekuan egunean hiru parte hartzaile. Irabazleak 1.300 euro, garaikurra eta idientzako mantak jasoko ditu

Urriaren 31n hasi eta azaroaren 5era bitartean jokatuko dira Aiako XI. Kintopeko idi probak herriko probalekuan. Saio guztiak 22:00etan hasiko dira, azaroaren 4koak salbu, 18:00etan izango baita.

Lehen egunean Julen Olasagasti, Zubiondo jatetxea eta Laski arituko dira norgehiagokan; Aratz Oleden oriotarra, Ekaitz Elordui eta Iñaki Lopategi bigarrenen; Arzadun aiarra, Egoitz Armaolea eta Loinaz hurrengoan; laugarrenean, Muguruza, Rafa Alegria eta Aiako Jose Mari Izeta; bosgarrenean, Orioko Enaitz Oleden, Isidro erretegia eta Narbasta; eta amaitzeko Bixkiak, Patxi Irarreta eta Etxabe.

Antolatzaileen arabera, probak ira-

bazteko faboritorik ez dago, maila oso altua baitago; batzuk aipatzekotan Zubiondo jatetxea, Bixkiak, Rafa Alegria, Oleden, Isidro Erretegia, Patxi Irarreta eta Etxabe onak direla esan dute.

Sarrerak

Jendetsuak izan ohi dira Kintopeko idi probak Aian, baina antolatzaileen esanetan, *egun asko izanda, saio guztietan ez da jende kopuru bera izango.*

Aurten, krisia dela-eta, proba zaleei deskontu txiki bat egitea pentsatu dute antolatzaileek: eguneko 5 euro ordainduko ditu lehen egunean 6 egunetarako sarrera hartzen duenak. Egun bakoitzetarako sarrera, berriz, 20 eurokoa da.

LABUR

Politika

EAJ garaile, baina gutxiatik

2009ko datuekin alderatuta behera egin badu ere, EAJ izan da Eusko Legebiltzarerako hauteskundeetan Aian boto gehien jaso duen alderdia, 497 guztira; 49 botoko aldea ateratzen dio baina EH Bilduri. PSE-EE izan da hirugarren, 15 botorekin -aurrekoan baino 5 boto gutxiago-.

Bertsolaritza

Bertso afaria eta antzerkia

Errikotxia bertsozale taldeak antolatutako bertso astearren baitan Aian ere izango da ekitaldirik. Urriaren 27an *Galtzagorrieto Iñaxito* bertso musikatua antzeztuko dute, 6 urtetik gorakoentzako, 17:00etan frontoian. Gauean, berriz, bertso afaria egingo dute Alkar elkarteak, 21:30ean, Aitzol Barandiaran, Martin Rezabal *Olaso* eta Anjel Larrañaga bertsolariekin. Txartelak Iturriotzena eta Loretzu tabernetan egongo dira salgai 18 euroren truke.

Moldatuko ote naiz?

Azkenaldian entzuten diren silikonazko titien kontu honekin, buruari birak ematen hasia nago. Ez dakit moldatuko naizen, artalore xamarra ere banaiz-eta! Ni bai harritzen nintzela, telebista ikusita; kriston bolak azaltzen dira! Ez gainera zintzilik! Ez, ez tente potente, briloarekin eta sendo. Nire baitan atera izan zait: *kontxo! Ez haiz izango haize lekukoa, bestela ez hitunan hain bola handiak.*

Bai zera! silikonarekin lagundutakoak omen dira asko. Seko artalorea izan nonbait ni. Baina tira! Zahartzaroan ere, ari gara gauza xelebreetaz jabetzen.

Dena dela, edertzeko asmoz egiten bada ondo dago. Alderantziz gertatzea litzateke tristea.

Nor da aspertzen dena bular biko ederrari begira? Ea esan, ea altxa besoa, begiratu nahi ez duenak! Munduko beso denak behean geratuko lirateke.

Zenbaitek esango du, idazten ari dena *viejo verderen* bat izango da! Ez adiskide, ez. Gauzak diren bezala esaten ditut. Emakumearen aberastasun bat da bular egokia izatea. Bera etxekoa bada, hobe.

Baina dena esan behar da. Edozein artalore engainatuko gintuzte konpondutako titi parearekin. Ni behintzat bai! Ez nieke berehalakoan antzemango.

Tamalez, azkenaldian entzun da komunikabideetan, silikonak akatsak ematen hasi ote diren-edo. *Mekasuen.* Horixe bai txarra. Ez ote zuten bada, material ona erabili? Zer egin behar dute orain gertaera horretan direnak? Ez dio-

gu horrelakorik opa, inori. Baina, lehenago nioena, edertzeko asmoz bizitzan ahalegina egitea ondo iruditzen zait. Baina kontuz, dena ez baita ematen duen bezalakoa. Gogoan izan dezagun beti, txanpon bakoitzak bi alde dituela.

Gure amonari-eta esan baliote, emakumeek gerora zer egingo zuten! Ene ba! Eta aitonek, zer erantzungo ote zuten? Gureak behintzat, ziur esango zuela: *sorginkeria horiek behintzat, ezin sinistuko dizkiagu!*

Eta hemendik ehun urtera egingo direnak, nork kontatuko ditu Aia-Orioko KARKARA aldizkarian?

Bular biko politak / badu bere dona // baina frakasatzea / zer nolako broma. // Ebakuntzaz ipini / ohi dan silikonak, // izan dadila behintzat / material ona.



Txokoak eta jendea

Altxerrin nola bizi ziren ikasten

Altxerriren aurkikuntza egin zenetik 50 urte igaro dira. Hau ospatzeko asmoareki, Aiako Udala eta Aranzadi Zientzia elkartearen eskutik tailer ugari eskaintzen ari dira, bi aste hauetan. Argazkian, Lardizabal ikastetxeko haurrak ikusi ditzakegu tailerretako batean, Jexux Tapia arkeologoaren gidaritzapean.



BANDERA ZARAUZTIK

ITZIARRERA

Zarauzko trainerilla estropadak jokatu eta irabazi ostean, Itziaroko Ama Birijinari eskaini zioten Orioko Arraun Elkarteak arraunlari eta patrioiak lehian lortutako Zarauzko Bandera preziatua. Urte asko pasa dira ordutik hona, 61 hain zuzen ere, eta gaur egun Itziarren, Sakristian jarrita, dago oraindik ere bandera hori, txukun-txukun zainduta.

Ezkerretik eskuinera, aurreko lerrotik hasita, hauexek dira argazkian agertzen direnak:

Alejandro Oliden *Konpaxa*, Bixente Elizondo *Bixentiko*, Rafael Gonzalez de Txabarri, Antonio Oliden *Konpaxa* (Alejandroren anaia); atzeko aldean, Klaudio Etxeberria Gorriya, Joakin Arrillaga. Erljio.gizonei dagokienez, Mons Eguino y Treku, Azkoitiko semea eta Santanderko apezpikua, eta Mons Font y Andreu, Donostiako apezpikua dira arraunlarien alboan ageri direnak.

ARGAZKIA: KUTXA INFOR.: ARANTXA ETXEBERRIA

karkara

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri Karkarara eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

Joana Murgiondo
Aseguru-agentia

ASEGURUAUAK

CCCI

ABESLARI, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

KAIUA

Plater konbinatuak,
bokatak, hanburgesak...


ANIBANKO PORTUA 36, BEHEA TF.: 943 940 060

ardoak, urdalkiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu

KVKKV **ARRI**

943 83 09 84 aita lertxundi, 36
ORIO




Juantxo Agirre, Aiako Kultur Etxean jarri duten Altxerri buruzko erakusketan. KARKARA

“Ondarea
ondorengoei
uzteko itxi
zuten Altxerri”

Juantxo Agirre Mauleon

Aranzadi zientzia elkarteko idazkari nagusia



Migliaccio, Vicuña eta Aranzadik aurkitu zituzten pinturak. Horieta bi Aiako alkatearekin. ARANZADI



André Leroi-Gourhan etnologoa eta Joxemiel Barandiaran antropologoa Altxerrin, 1966an. ARANZADI

Altxerrin zaharrak berri. Ez, ordea, albisterik ez dagoelako; alderantziz, kobazuloan aurkitutako **historiaurreko margoen garrantzia** jendaurrean azaldu dutelako baizik. Urteetan aritu dira adituak azterketa lanetan eta herritarrei azaldu nahi diete Aian duten altxorra nolakoa den.

TESTUA: IRATI AGIRREAZALDEGI ARGAZKIAK: KARKARA ETA ARANZADI

Igandean, urriaren 28an, beteko dira 50 urte Altxerriko harrobian agertutako zulo batera sartu eta Aranzadiko espeleologo gazteek margo eta grabatuak aurkitu zituztela. Irudi horien garrantzia jendartean zabaltzeko erakusketa egin dute orain, baita liburu bat plazaratu ere. Ekitaldi berezi bat ere egitekoak dira.

Egun gogoangarriaren atarian, Altxerriko aztarnez hitz egin digu Aranzadi elkarteke idazkari nagusi Juantxo Agirrek, Altzolako Semeola baserriko bilobak.

Nola aurkitu zuten Altxerriko koba?

Oso aktibo zegoen Aranzadiko espeleologia saila 1962an eta hiru espeleologo

gazte-Felipe Aranzadi, Javier Migliaccio eta Juan Cruz Vicuña-, bidali zituzten Altxerrira harrobiko ustiaketa egiten ari zirenean zulo bat agertu zelako. Bazekiten barruan aztarnategiak aurki zitzaizketela: hezurak lur azpian. Bide batez, ea hormetan Madeleine aldiko pinturarik ba ote zegoen begiratu zuten: bisontea, zaldiak... Segituan aurkitu zituzten margoak.

Aranzadiko ohorezko lehendakari zuten Joxe Migel Barandiaranekin jarri ziren harremanetan, eta hurrengo egunean bertan joan zen Barandiaran Altxerrira. Hark pinturak egiazkoak ziren baieztatzeko frogaren bat behar zela esan zuen. Pintura batzuen gainetik zarakar estalagmitikoa zegoela ikusi zuten. Ehunka urte behar izaten dira kare azaltxo hori sortzeko, eta azpian pintura

zatitxoak zeuden. Hori izan zen pinturak egiazkotzat jotzeko proba.

Aurreko lau hamarkadetan ikerlari asko ibili zen Gipuzkoan margoak zituzten kobazuloen bila: Barandiaran bera, Telesforo Aranzadi, Tomas Atauri... Gehienetan espeleologia sailekoak zuloetan sartzen ziren hangoa aztertzerak. Altxerriko aurkikuntza zientifikoa, pinturak han zeudela esan zutenekoa, 1962ko urriaren 28an izan zen. Handik egun batzuetara, irudi esanguratsuenak -bisontea- ikusi zuen Francisco Fernandez Garcia de Diego espeleologoak. Lehen egunean aurkitu zituzten pintura gehienak beltzez margotutakoak ziren. Handik pare bat egunetara kobazuloko galeria eta leize guztiak ikuskatu eta margo eta irudi gehiago aurkitu zituen lan talde osoak.



Nolakoa da barrutik haitzuloa?

Duela 12.000-13.000 urteko gizakiak hormak nola tratatu, arraspatu eta marraztu zituen ikusten da kobazuloan. Grabatu pila dago, zizelarekin egindako marrazkiak alegia. Horietan animaliak agertzen dira. Bestalde, batetik, marrazki beltzak daude, ikatzarekin eginak; eta gorriak, okrearekin egindakoak. Horien artean, atentzioa ematen du bisonte gorri batek, Europan ezagutzen den handienetarikoa baita. Grabatuen artean badira arrainak, elur-oreinak, azeriak, txoriak... Marrazkien kopuru aldetik goi mailan dago Altxerri; azpimarratzekoa da Euskal Herrian espezie gehien agertzen den kobazuloa dela.

Zergatik itxi zuten kobazuloa?

Orain dela 50 urte itxi zuten, eta oso gutxitan ireki izan da, beti ere historialari edo ikerlarientzat. Izan ere, Altxerriko kobazuloaren barruan ibiltzea, mugitzea, oso arriskutsua da, leize asko daude-eta. Gainera, barruan, mikroklima berezia dago: tenperatura, iluntasuna... Horri esker kontserbatzen dira pinturak. Kanpotik argi elektrikoa edota kutsakorrak diren landare edo goroldio haizak sartuz gero edo tenperatura igotzen bada, ondorio kaltegarriak ekarriko litzukete. Horren adibide gertukoak da Santimamiñekoa. Han, pinturak bizibizi ikusten dira orain dela 100 urteko argazkietan, baina hamarkada batzuetan bisitari ugari egon izanaren ondorioz, pintura horiek galdu egin dute beren izaera eta hasierako kolore bizia. Altxerri ere horregatik dago itxita, ondarea geroko belaunaldientzat utzi behar delako.

Gipuzkoako dozenaka kobazulotan badira aztarnak, baina margorik ez. Kobazulo horiek irekita daude, edonor sar daiteke; pinturak daudenetan, ordea, ez.

Aztertzerak baino ez dira sartzen orain. Gero irekitzeko asmorik ba al dago?

Ez dut uste. Batetik, oso arriskutsua delako, eta bestetik, margoak kontserbatzea delako garrantzitsuena. Gainera, kobazulorako irisgarritasuna bermatze-



“Pintura batzuen gainetik zarakar estalagmitikoa zegoen. Ehunka urte behar izaten da kare azaltxo hori sortzeko, eta azpian pintura zatitxoak zeuden. Hori izan zen pinturak egiazkotzat jotzeko proba.”


“Marrazkien kopuru aldetik goi mailan dago Altxerri; azpimarratzekoa da Euskal Herrian espezie gehien agertzen den kobazuloa dela.”

“Altxerriko kobazuloaren barruan ibiltzea, mugitzea, oso arriskutsua da, leize asko dago-eta. Gainera, barruan, mikroklima berezia dago: tenperatura, iluntasuna... Horri esker kontserbatzen dira pinturak.”

“Kobazulorako irisgarritasuna bermatzeko inbertsioak sekulakoa izan beharko luke; eta kobaren egoeran eragingo luke jarri beharko luketen azpiegiturak.”

“Aian ikusten da oinarri lagungarri bat herrigunearekin uztartzeko. Iturranekin eta Pagoetako parkearekin ardatz horretan kokatzeko beste kultura ekarpen txiki bat, 200 metro koadrokoa.”

“Altxerriko museoaren proiektuaren arabera, lur pixka bat mugituko dute; gero berriz landare lurra bota eta sarbidea bakarrik ikusiko da. Beste Ekainberri handi bat ezinezkoa da.”



ko inbertsioak sekulakoa izan beharko luke; eta kobaren egoeran eragingo luke jarri beharko luketen azpiegiturak.


Horren harira, Aiako Udalak gogoeta egin du. Kobazulo barruko balio, pintura eta hortik ateratako inguruari buruzko datuak oso garrantzitsuak direnez, 200 metro koadroko zentro txiki bat egin nahi du herrigunetik gertu. Horrela, Altxerri barruan zer dagoen ikusteko eta ikasteko aukera izango luke jendeak, Aiako ondare handienaz gozatzeko museografia polit horri esker. Aranzadi Zientzia Elkartetik oso begi onez ikusi dugu proiektua, Altxerri bere tokian kokatzeko eta herrian beste dinamika bat sortzeko aukera ekarriko duelako. Euskal Herriko kultura ondarearen mapan agerraraziko du Aia, eta herrigunera ere jende gehiago erakar dezake.

Horrelako urteurren batek zenbaterainoko garrantzia du?

Urteurrena garrantzitsua da, mende erdiak Altxerriren inguruan zer egin dugun jakiteko ikuspegia ematen duelako: zer egin den ongi eta zer ez. Ongi egin dugun gauzetako bat kobazuloa babestea izan da. Hasieratik ixteak kobazuloaren zaintza eta egoera ona erraztu eta bermatu ditu. Bestalde, egin ez ditugunen artean, ikerketa sakonagoa eta bere balioak ez gizarteratzea daude. Data honen inguruan gogoeta sakona egiten ari gara erakunde zientifikoak eta erakunde publikoak -Aiako Udala buru- elkarlanean. Beraz, mugarria izango da urteurrena, lehen aldiz Altxerriren barruan zer dagoen gizarteratuko dugulako modu herrikoian. Aiako herriaren aurrean egin genuen lehenengo, Euskal Herriaren aurrean gero, eta munduaren aurrean egingo dugu Donostian, Victoria Eugenia antzokian egingo den ekitaldi batean. Berez, garrantzitsuena ez da urteurrena bera, aurtun abian jarri ditugun ekimenak baizik.

Urteurrenak baino kobazuloak berak dauka garrantzia, ezta?

Hala da, bai. Azpimarratu nahi nuke une honetan Kantabriako Unibertsitateko



ikasle bat Altxerri barruko irudiei buruzko doktore tesia ari dela egiten. Arlo zientifikoa ezagutza guztiak eguneratzen ari dira. Hori guztia gizarteratu behar genuen, eta bi eredu ditugu horretarako: Ekain –Deba– eta Santimamiñe –Kortezubi–. Bi horiek gizateriaren ondare dira; hirugarrena, Altxerri, berriz, ia izenik gabekoa zen, tokirik gabea; gutxi zekiten zein udalerritan zegoen, barruan zer zegoen... Eskoletan ez zen Altxerri aipatzen, besteek adinako garrantzia izan arren. Europatik eta Unescotik bere balioa goraipatu dute, baina euskal gizartea pixka bat atzetik doa. Lehenago edo beranduago, bere tokian jarri behar da Altxerri eta bide horrekin hasi gara.

Unescok gizateriaren ondare izendatuta dauka, baina aiarrek badakite nolako ondarea daukaten herrian?

Ez, eta hori da, hain zuzen ere, azken 50 urteotan historiaurrea alorrean lan egiten dugunok egin ez dugun zerbaite: ez dugu bere balioa gizartera zabaldu.

Aiatik etorri da martxan den ekimena 50 urte geroago. Besteak beste udalerrirako asko jendea berera erakartzeko balio duen zerbaite bereziaren bila dabilta. Aiak bi gauza berezi ditu: ingurumena, hau da, natur paisaia– Pagoeta barne–, eta Altxerri. Euskara ere bada Aiako kultura ondare preziatuena, baina baita Oriokoa ere. Beraz, Aia beste herrietatik bereizten duena Altxerriko koba da.

Horregatik erakusketa egin dute Aiako Kultur Etxean, baita hitzaldia eta

OMENALDIA

Victoria Eugenia. Azaroaren 8an, 19:30ean, ekitaldi berezia izango da: *La cueva de los sueños olvidados* filma emango dute aurrena; gero, Oreka TX-en txalaparta doinuekin eta Juan Luis Goenagaren margoekin, *performancea* izango da; eta bukatzeko, kobako margoak aurkitu zituztenek omenaldia jasoko dute. 10 euro kostako da ekitaldiaz gozatzea. Liburua ere jasoko dute bertaratuek.

IRUDIETA ANIMALI GEHIEN

Diego Garate aditua da haitzuloetako artean, eta Altxerriko erakusketaren aurkezpenan, kobako irudien garrantzia azpimarratu zuen.

Bere hitzetan, *Altxerri ez da kobazulo arrunta*. Ekain eta biak momentu bertsuan aurkitu zituzten; kobazulo ikusgarria da hura. Bestalde, historiaurreko ikur bihurtu zen Santimamiñe. *Beraz, badirudi, Altxerri baztertutako anaia txikia dela, baina ideia hori burutik kendu behar dugu*.

Izan ere, zergatik ez da Altxerri kobazulo soil bat? Bada, besteek baino animalia irudi gehiago dituelako: 110, hain zuzen ere. Ekainekoak 61 dira eta Santimamiñekoak, berriz, 46. Arte honetan zaldiak, bisonteak eta oreinak dira nagusi. Altxerri horiez gain, ahuntzak, hartza, zezen basatia eta ohiko ez diren erbia, sugea, arrainak, txoriak, antilopea, otsoa eta azeria daude. *Kobazulo gutxi daude European hainbeste animalia ezberdinekin eta horrek aberastasun handia ematen dio*. Gainera, horma prestatu egiten zuten margotu aurretik. *Hori Altxerri baino ez da gertatzen, eta errekurso artistikoa da kontrastea loritu eta margoak hobeto ikusteko*.

Animalia asko daudela bai, baina askok ez daki Altxerri ez dela kobazulo bakarra, bere baitan bi daudela. Goi partean galeria bat dago, eta hor 4 metroko bisonte gorria marraztuta dago. *Frantziako Lascaux kobazuloan zezen basatiak pixka bat handiagoak dira, baina beste askorik ez dago*. Behetik eskailera batekin igo daiteke aztartzerara eta kenduz gero, material espeleologikoa gabe ezinezkoa da sartzea; beraz, *uste dugu galeria horrek beste sarrera bat zuela*. Animalien hezurak ere aurkitu dituzte, eta *animaliak handik sartuko zirenik ez da segurua*. *Bisonte baten bizkarrezurra ere badago horman sartuta eta Kantaurialdean ez da hain arrunta hain handiak aurkitzea; beraz, goikoa zaharagoa izango da*.

Irudi ugari eta jakin beharreko gauza pila bat gordetzen dituzte, hortaz, Altxerriko horniek.



umeentzat tailerrak ere. Aiako etxe guztietan 100 orriko liburu bat ere banatu dute, eta nire ustez hori da lehen oinarria: Aiako eta inguruko bizilagunek jakitea zer daukaten han. Aiako etxeetara ez ezik Euskal Herriko liburutegi guztietara ere banatuko dute.

Kobazuloen inguruko turismoak erakartzeko du jendea?

Aian aurreikusten den egitasmoa neurrikoa da: oso txikia, oso ahalegin ekonomiko txikia eskatzen du eta jasangarria izango da irekitzen denetik aurrera. Ekainberri 10 milioi euro inguruko kostua izan zuen, Santimamiñen ere ehunka mila euro jarri zituzten, baina Aian ikusten da oinarri lagungarri bat herrigunearrekin uztartzeko. Iturrarekin eta Pagoetako parkearekin ardatz horretan kokatzeko beste kultura ekarpen txiki bat, 200 metro koadrokoa. Gaur egungo krisiari begira oso saiakera egokia da eta indartuko du Aiako herriaren duen kultur nortasuna eta Aiako erdiguneak daukan erakargarratasuna. Hain txikia izanda ez du ingurumenean eragin handirik izango.

Proiektuaren arabera, lur pixka bat mugituko dute; gero berriz landare lurra bota eta sarbidea bakarrik ikusiko da. Beste Ekainberri bat ezinezkoa da.

Erreproduzio bat izango al da?

Museografia alorrean, historiaurreko hainbat aditu ari gara talde lanean Udalaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren laguntzarekin. Baliabide guztiak izango ditu museoak: panelak, erreplikak, erreproduzioak, baliabide interaktiboak... Altxerri izan behar da tresna bat gure ingurumena hobeto ulertzeko, gure biodibertsitatea hobeto zaintzeko eta gure kultur izaerari eusteko. Izan ere, hiru ardatzen atzean dago Aia nortasuna: euskara, natura eta historia. Balio horiek zabaldu behar dira Altxerriaren inguruan. Krisi garaian ere Euskal Herriak apustu txikiak egin behar ditu bere kultura ondarearen alde; ezin gara lo gelditu eta epe ertainera Altxerriaren museoa errealitate izango da.

Adiorik ez

Neldu da moila bazterra utzi eta *barrura* sartzeko ordua. Gogoan dut, lehen aldi hartan idatzitakoa.

Niri buruzko hainbat datu eman nizkizuen: ama eta aita, biak, aiarrak zirela, ahizpa gazteago bat nuela, eta odolez oriotarra ez izanagatik ere, oriotar *peto* sentitzen nintzela. Oriotar gisa onartzeko nahikoa ez bazen, Orion balea agertu zen egunekoa nintzela ere aipatu nuen.

Lehen aldi hartatik askotan itzuli naiz moila bazter honetara, eta tarte horretan elkar hobeto ezagutu dugu. Txoko kuttun horrek barrua askatzeko, terapia gisa, balio izan dit askotan. Sentitzen dut, sarritan nire kontuekin ernegatu bazaituztet. Gaizki esanak barkatu, eta ondo esanak gogoan hartu.

KARKARAKO lagunei ere eskerrak eman nahi dizkiet idazteko aukera ezinhobe hori eskaintzeagatik. Biba zuek!

Azken sermoi honetan kontu bat argitu nahiko nuke. Aldez aurretik, barkatu

Itziar. Kurtso hasierako lehen alean, KARKARAREN baitan egon den aldaketaren berri eman zuten, eta albistea ilustratzeko, joan direnen eta etorri garenon bi argitaratu ziren: bat azalean eta bestea, barruko orrialde batean.

Ba, argazki horrek askori Mari-bi harakinak bi alaba dituela jakiteko balio izan zien, orain arte, askorentzat pertsona bakarra baikinen. Antza edukitzea gauza bat da, baina pertsona bera ginela pentsatzea ere! Eskerrak, izaeraz behintzat ezberdinak garen!

Eta kontu horretan, ume nintzenetik ezagutzen nauen, eta asko estimatzen dudan lagun batek harritu ninduen, gehien. Uda osteko KARKARAKO lehen

aleko azala ikusita, Itziar edo ni nintzen galdetu omen zion bere buruari. Barruko argazkia ikusi omen zuen zalantzak argitzeko, alajaina!



Aurrerantzean, moila bazter honetako nire txokoan beste oriotar bat egongo da; hala ere izango duzue nire berri, Karkara Taldean jarraituko dut eta!

Dagoeneko hautaketa prozesua zabalik dago. KARKARA aldizkarian idazteko aukera eskaintzen da, gutxi gorabehera bi hilabete behin. Idazteko gogo izatea eta kontatzeko zerbait izatea baino ez dira eskatzen. Bizi dugun krisi egoera ekonomikoa kontuan hartuta, ez al da aukera oso ona? Aprobetxatu!

Gaurtik aurrera ere etorriko naiz moila bazter honetara, baina soilik irakurle gisa. Moilan berriz ikusi arte, aio!

P.D.: Orion, Goiko Kalen, bizi diren Enea lankidea eta Nestor, haren bikotea, zoriondu nahi ditut hemendik, aurrenekoz, guraso izan direlako. Zorionak! Eta zuri Danel, ongi etorri!

Gaurtik aurrera ere etorriko naiz moila bazter honetara, irakurle bezala.

943 83 09 86

KOASTA
Wifi zerbitzua
Kopak, gau giro aparta...

KOLON TXIKI
ahartegia jatetxea

Herriko Enparantza, 4
ORIO
Tel. 943 83 00 44

LEIHOLAN

Aholkularitza teknikoa eta erakusketak

Fabrika Agote Industrialdea Agote, 5. 20740 Zestoia	Erakusketak San Prantzika, 1. 20800 Zarautz	Alta Lertxundi, 21. 20810 Orlio Tel: 943 89 49 36
--------------------------------------------------------------	---------------------------------------------------	---------------------------------------------------------

LUXARBE
igeltseritza

Igeltseritza orokorra, denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu konpromisorik gabe

Lan txukuna eta merkea

Tfnoak: 943 83 59 00

Lizaso dekorazioa

Eusko Gudari, 48
Tel: 943 83 07 84 Faxa: 943 84 87 15

mauka

PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TEL - 943. 572083
FAX - 943. 571190
Lasenjo@hotmail.es

INES ASEÑO
IBAI ONDÓ 13
20810 ORIO

LOBETXU JATETXEA

Eusko Gudari, 18 Tel: 943 83 00 07

Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tf / fax: 943 13 00 77
sagastileihoak@telefonica.net
Arrantzale kalea, 65
20810 Orlio (Gipuzkoa)

Antzerki politikoaz

Buela ez asko, orduan ere nire sal-tsetan nenbilela, *rol-playing* txiki bat egiteko boluntarioak eskatu zituzten. Horretara ere animatu nintzen. Ez zen lan makala, baina politika zale eta jale den batentzat interesgarria zinez. Politikari lanetan jarri ninduten. Hitz egitea gustuko eta hara non ni, lehendakari gai baten paperean. Konpromiso eta hitz jarioz beteriko programa eskuan eta atril bat aurrean. Hizlari gisa hastean, aurrean zer eta nor nuenaren berririk izan gabe, hitzaldian galduta, nahastuta eta arrazoien bidezidortan nondik atera ez nekiela ibili nintzen, baina antzezten fin. Antzerkitxoaren helburua erraza bezain zaila zen: ingurukoak neureganatzea.

Egunotan, nik egindako pelikula telebistan ikusteko aukera izan dut. Pasa berri den hauteskunde kanpainan, drama bera medioetako joko politiko bihurtu da beste behin. Hautesle limurtzeko mila promesa eta botoa lortzearen aldeko diskurtso hutsalak nonahi. Eslogana eta propaganda bakoitzak, liderra den

pertsonaren inguruko sinesgarritasun eta konfiantza lortu nahian, baina datozen lau urteetan egin nahi dena saldu gabe askotan. Tentsio kalkulatu eta *aktore* bakoitzak bere papera hartuz, etengabe ekin diete politikariek portaera entseatuak ondo ikasi eta aktore paperari.

Gaur egun alderdi politikoen iragarki edo propaganda kanpaina bakoitza, programen eta diskurtsoen azalpenen orde, hautagaia deskribatzeko etengabeko esfortzu bilakatu da. Hori guztia lider politikaria indartzeko helburuarekin. Izan ere, egungo politikari gehientsuenak, ezer esan ez eta irudi hutsak duen indarrak aprobetxatzeko *linguistika* malabarismoaz baliatzen dira.

Ikus-entzule gizagaixook diskurtso merkeak entzungo ditugula jakin badakigun arren, oraindik ere komunikazio politikoak iritzi publikoaren eraikuntzan duen eragina nabarmena da. Presio politiko eta indar-gune izan daitezkeen interesgune ekonomikoetatik aske izan beharra duten baina ez diren medioak jan, kontsumitzen ditugu. Eta oraindik ez gara gai hori guztia hautesleriaren kritika gaitasunen galbahetik pasa eta izaera kritikoz irensteko, ez bada ez dugula ikuspuntu kritikoz begiratu nahi.

Hauteskunde kanpaina amaitu bada ere, kanpaina ostearen bueltako zenbaki azoka da nagusi. Oraindik ere, lehia politikoak hartzen duen bertsio *humanizatuaren* dramatizazio artifizialarekin jarraituko dugu. Lau urtean, 15 egunetan esandako guztia egin, egin beharko dute liderrek, orain da horri erantzuteko garaia. Hauteskunde kanpainen erabilitako argudioek, hitz hutsak izateari utzi eta hauteslearekin lortutako konpromisoa mantendu eta betetzeari ekin beharko diote.

Egindako antzerkian nik ere boto gehienak neure egin nituen. Baina bateren batek komuneko papera gutun-azalaren barnean sartu zuen. Zera... garbitzeko edo. Nire antzerkiak ez, baina errealitateko dramak bere horretan dirau, errealitatea bera baino gauza antzeztuagorik ez baita, eta are gehiago politikan.

Nire honetan
Elizabete Manterola

Iritsi berritan

Udaberrian izan genuen lehenengo bilerara. Hara, zu ere hemen! Zuk ere emaila jaso al duzu? Bai, bai, ea zer esaten diguten... Aire berriak barrura edo kitto KARKARA! Jesus! Ardura handia da gero, herriko aldizkaria hiltzen uztea! Ondo pentsatu beharreko erabakia, inondik inora. Eta halaxe izan genuen bilera bat, eta gero bestea, eta gehiago ere bai atzetik. Nik atal hau berrituko nuke eta nik, berri-ri, beste hura kendu; elkar-irizketa egiteko pertsona egokia izan daiteke hura; webguneari ere astindu bat ematea komeni...

Pena merezi? Zer pena klase, gero! Hartu boligrafo gorria eta azpimarratu. Merezi izango du, bai horixe! Lana gogor egin beharko da, hori bai! Eta ordainetan? Ondo gogoan dut KARKARAN idatzia kaleratu eta bi egunetara telefono deia jaso izana. Ai ama, hain gogorra izan al naiz! Beste iritzi artikulua bat argitaratu eta bost bat urte beranduago ere kontu eske etorri zitzaidan besteren bat... Zertarako dugu bada herriko aldizkaria, jendeari zeresana eman eta bazterrak nahasten aritzeko ez bada? Boligrafo gorria eskuan eta betaurreko berrietatik begira, punta ateratzeko dispendio aurrera gaitzue hemendik izanera. Ordainetan, zuek ere guri punta ateratzea espero!

Lau urtean, 15 egunetan esandako guztia egin, egin beharko dute liderrek, orain da horri erantzuteko garaia. Hauteskunde kanpainen erabilitako argudioek, hitz hutsak izateari utzi eta hauteslearekin lortutako konpromisoa mantendu eta betetzeari ekin beharko diote

LURDES
ARRAZOEGIA



Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24

Ile apaindegia
MARIJO



Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8 - bajo
Tel. 943 13 47 29
ORIO

MIRANDA
AROTZ LANAK...



Larima, ate, leiho, eskalera...
behar diren arotz lanak
egino dirikizugu

Urdaneta bidea, 1 - 669 42 32 70 - ZARAUTZ

PERTSIANAK
A K O M A Z



Aluminio, PVC
Venezianak
Motorrak...

Tel. 943 33 29 01 Muzikorra 600 70 52 27

Igo zaitetz haize berrietara!

Galerna I

943890416 - 677149934
galerna1orio@hotmail.com

Gabon

TABERNA

plater konbinatuak eta pintxoak

Tfnos: 943 83 06 09

GARMENDIA

INMOBILIARIA - AHOIKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
Tel: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

azkue

karrozeria

Ubegun industrialdea, 7 20809 Aia-Orio
Tf/fax: 943 83 51 86 Carroceriasazkue@hotmail.com

bodegas ERRASTI, S. L.

Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gailur: Señorío de Laurgain
Gailur eta Ardanlegi,
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 46 ORIO • 943 83 03 86 / 83 59 52 • E-posta: bodegaserrasti@euskalnet.net

ARKAITZ

Taberna

Pintxoak,
plater konbinatuak
eta ogitarleko mundialak

ABESLARI KALEA, 4 TEL: 943 83 16 57

Automóviles ZARAUTZ

CITROËN ZERBITZU OFIZIALA

bilgailu berriak
eta iz berriak
saga

ZARAUTZ. Tel. 943 13 13 50

Goizeko

KAFETEGIA

943 83 28 55

Aita Leixundi, 33 behea - ORIO
Autobus parada ondoan

Carmen eta Txomin
ARRANDEGIAR

943 83 05 37 / 943 83 27 47

AIRIDATZA modas

Eusko Gudariak, 7 • Tel./Fax: 943 83 10 88 • 20810 ORIO

HAIZE BERRI

etxera-jateko-kafetegia

Plater konbinatuak,
bokatak,
hamburgerak,
raziok,
eguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzua!

Ordo kudeatzen. Eskara 1. 4º 40.01' 53" Amara garraiata kalea

BERME Aholkularitza S.L.
Zerga eta lege aholkularitza

- ENTIKALATZAREN AHOIKULARITZA
- ENTIKALATZAREN IRISLA
- ENTIKALATZAREN JIRIBERRA
- LUR-ENKANTUEN AHOIKULARITZA
- ENTEEN ADMINISTRAZIOA
- AHOIKUNEN ENTEEN ADMINISTRAZIOA

Delia Montolio Elizanadi
tel. 943 83 07 23

Berme Kale 10 Bep
48900 Berme (Bizkaia)
S/Nº 24.001.07
www.bermeaholkularitza.com

uranga

autozerbitzua

Aliprox

Eusko Gudari Kalea 13-15
ORIO
943 83 38 75

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93 / 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01 - 656 78 29 99

BARAKA

estilo berria

Ogitarlekoak
Pintxoak
Plater konbinatuak
Etxeko janaria

943 13 13 12
Aitor

agirresarobe

PROIEKTUAK, OBRAK ETA ERREFORMAK

- OBRA BERRIEN PROIEKTUAK
- ETXE ETA LOKALEN ERREFORMAK
- FATXADEN ERABERRITZEAK
- IGOGAILUEN PROIEKTUAK
- GREMIO KOORDINAKUNTZA
- INFORMEAK, OBRA LEGALIZAZIOAK, ...

ITURRIBIDE 8, 5. BULEGUA, ZARAUTZ
BORJA AGIRRESAROBE, ARKITEKTOA 635 731 722

Gaia emanda Antzerki taldea osatu ezin

Hilabeteak dira antzerki-talde bat osatzeko intentzioarekin, jende bila dabilela herritar talde bat. Saiakerak saiakera, badirudi aurten, gutxienez, ez dela lortuko

Antzerkirako gogoia gainbehera al doa?

Balearen eguneko antzerkiak igo ohi zituen lehen hainbat oriotar taula gainera. Urte batean Patxi Santamaria aktorearekin ikastaro bat egin eta beste antzezlan batekin ere ausartu ziren batzuk. Azken Balearen eguna pasa ondoren, kalean bati baino gehiagori entzun nion zergatik ez zegoen antzerki talderik herrian. Horren harira deialdi bat egin genuen, jendea antzezle papera hartzera animatzen ote zen ikusteko.

Deialdia egin genuen eta udako oporren aurreko lehen bilerara 10 lagun gerturatu ziren. Antzerki ikastaroa irailerako utzi genuen. Irailean baina, lau lagun besterik ez ziren azaldu. Interesa bai, baina etorri ez. Beraz, gogoak gainbehera egin zuela zirudien, beroaldia pasa zela. Zeudenen gogoia, ordea, bere horretan zen. Patxi Santamariarekin ikastaroa hasi behar zen egunean bi baino ez ziren etorri.

Interesa ba omen dago, baina zein da momentua iristen denean ez agertzeko arrazoia? Eguna, ordua, denborarik eza, ikastaroa ordaindu beharra... Egin duguna baino gehiago ezin dugu egin, jendea konbentzitu nahian

Bada antzerkian ibilitako jendea, doaiak dituen eta gustukoa duena

ere saiatu gara, baina badirudi antzerki ikastarorako leihatilan txartel asko egongo direla inork jaso gabe.

Beharbada, jendeak ez du ikasturte osorako konpromisorik hartu nahi; antzerkiak eman diezaiokeen askatasunarekin jokatzeko nahikoa da. Talde bat sortuko balitz, ikastarorik gabe, ziur naiz tartekabat edo beste agertuko litzatekeela, baina lau lagunekin ezin da ezer askorik egin, norbaitek huts eginez gero... akabo.

Ez dakit herri honetan zer egin behar den gauzak antolatzeke eta abian jartzeko. Beti kexu gara hau ez da egiten, bestea ez da antolatzen, hau egongo eta bestea egingo balitz... baina egindakoan apenas agertzen da inor.

Ikastarorako pausoa eman zutenetako batzuek espresioa eta interpretazioa landu nahi zituzten: intonazioa, aurpegiaren keinuak, gorputzaren mugimenduak, hitzik esan gabe agertokia nola bete... Antzerki talde batean sartzeko interes askorik ez izan arren, sortuko balitz agian emango lukete pausoa. Orion bada lehen antzerkian ibilitako jendea, doaiak dituen eta oso gustuko duena.

Antzerkia gorputzerako eta bururako onuragarria da: askatasunerako era, lotsa galtzeko bidea eta norbere buruarekin konfiantza izateko modua. Probatu, beraz, eta gustuko ezean utzi.

Imanol Urkizu
Kultur Etxeko atezaina

Antzerkiaren bertuteak asko dira

Antzerkia gustukoa dut eta horretan trebatzeko asmoz, segituan eman nion baietza Imanoli, herrian bertan taldea osatu nahi zela adierazi zidanean.

Lehendik ere hartu izan dut parte herrietan egindako antzerki-saioretan; esate baterako, duela urte batzuk talde polit bat osatu zen, kultur etxean eskaini zen emanaldi gogoangarri -niretzat, behinik behin- hura eta guzti. Talde txikitik, giro goxoan aritu ginen aurpegikerak, keinuak... lantzen. Askok ikasituen, eta ikasten jarraitzeko gogoz geratu nintzen.

Aurten etorri zait horri heltzeko aukera paregabea. Herrian antzerkigintzari hel-

tzeko aukera dago, baina jenderik gabe ezin. 8-10 lagun behar dira gutxienez, antzerkiari dagokionez, aberatsa izango bada; eta patrikari begiratuta, merkeagoa delako.

Pena galanta hartuko nuke taldea ez balitz osatuko! Izan ere, alde on asko ikusten dizkiot antzerkiari: norberak bere burua ezagutzea ahalbidetzen du alde batetik; gaur egun hain itxita bizi garen gizarte honetan sentimenduak kanporatzeko apartekoa ere bada; barruko estresa, ezinegona eta urduritasuna kanalizatzeko bidea ere bai; norberaren bizimoduarekiko, jokabideekiko eta jarrerarekiko ikuspuntu kontzientea osatzen laguntzen du, berez naturalki egindako horien hausnarketa bultzatuz.

Horrez gain, testuari zaion beldurra galtzen da, behin eta berriz errepikatuz paperekoa. Esan beharrik ez dago hizkuntza ere lantzen dela, edozein dela ere. Euskaraz egin izan dira gehienak orain artean gutxienez. Hori guztia giro jator eta osasuntsuan, ondo pasaz, presiorik gabe eta lagunartean.

Bertute gehiago ere izango ditu antzerkiak. Baina nik neronek kontatu baino hobe duzue zuek hurbildu Orioko Kultur Etxera, jolasean jardun, barre egin... eta probatzera. Ni bezala, hurrengo aukera noiz etorriko zain gertuko zarete, seguru asko, ikastaroa bukatutakoan-eta!

Marijo Manterola
Etxekoandrea

Alde on asko ikusten dizkiot antzerkiari: norberak bere burua ezagutzea ahalbidetzen du; sentimenduak kanporatzeko apartekoa ere bada; barruko estresa, ezinegona eta urduritasuna kanalizatzeko bidea ere bai



Enea lan berriaren azalerako zerumugan dabilen kometa baten irudia aukeratu dute taldekideek. GIRANICE

Eboluzio isla, 2. lana entzungai

Kritika Giranice

Musika taldea, 'Enea' disko berria sarean aurkeztu zuten irailaren bukaeran. Doan deskargatzeko: <http://giranice.bandcamp.com>

Enea izenarekin, Giranice talde oriotarrak bere bigarren lana jarri du sarean.

Bost abestiz osatutako diskoa, askorentzat artaldeko ardi beltza izango da, alegia, entzuteko neketsua, aspergarria; beste batzuei, aldiz, lorategiko lore ederrena ere irudituko zaie, ilusioz betea, bizigarria, ohiko irrati, taberna, gaztetxe eta herriko festan entzuten ditugun betiko doinuekin alderatuta.

Abestien egiturei errepara-

tuta, melodiak estraineko diskoan baino alaiagoak dira, rock-etik pixka bat aldendu eta ukitu *sinfonikoagoa* dute. Honela, disko hori entzuteko zein *ikusteko* ere bada, alegia, oso aproposa edozein pelikula edo dokumentaletarako.

Berezia, taldeak *Banako Zen* abestiarekin geure kulturari egindako keinua. Piezak irauten dituen 9 minutuetan nabari da erritmo, tinbre zein melodiak mutur batetik bestera eramanda, musikariek sentsazio eta *paisaia musikal* oso ezberdinak sortzeko duten gaitasuna. Aipatzekoa ere, *Adam Mallioten* zati batean gitarren lana, landua eta oso ondo josia, denen artean pasarte berezia lortuz.

Bigarren lan honekin tal-

deak urrats sendoa eman du, pixkanaka, euren miresten dituzten taldeen –*Sigur Ros, Radiohead, Explosions In The Sky*...– doinuetara gerturatu eta post-rockean adituak diren webguneetan iritzi oso onak jasota.

Taldekideen izerdi, pasio eta nahien biltegia den diskoarekin, Giranicek atsedena hartu du, besteak beste, dituzten proiektu pertsonalak aurrera eramanez ahal izateko.

Ea itzuleran, euren bizipenak hirugarren lantxo batekin kontatzen dizkiguten!

[IÑIGO GAITON]

Ikasleak idazle
Myriam Renedo

Zaborrez inguratuta

Denda batera joaten garenean erosten ditugun produktu gehienak aluminiozko ontzietan, beirazko poteetan, plastikoetan, paperetan, kartoietan... bilduta daude. Etxera iristen garenean denak zakarrontzira doaz. Azkenean, konturatu gabe, zaborra inguru guztietara iristen ari da, eta natura gero eta kaltetuago dago.



Pixkanaka-pixkanaka ari gara ohiturak aldatzen. Gero eta gehiago birziklatzen dugu. Eskolan ere,

zabor organikoarekin konpostea nola egiten den ikasten ari gara. Kaxa handi batean, orbela eta lurrarekin zizareak ditugu, horiek hondakin organikoekin elikatzen dira, konpostea eginez. Eskolan dugun baratzerako, ongarririk baina!

Nire ustez irtenbidea birziklatzea da; horrela zabor gutxiago sortuko genuke.

**Gero eta gehiago
birziklatzen dugu;
eskolan ere zabor
organikoarekin
konpostea nola
egiten den ikasten
ari gara**

FISIOTERAPIA: Garkoltz Aristegi eta Natalia Wierzesen
NUTRIZIONISTA: Garbiñe Aizpuru

sinergia investigación
fisioterapia

ibai ondo, 1, behe-oina | ORIO | 943 13 05 77 ~ 685 71 85 95

TAILER MEKANIKOA
MANTEROLA S/L
TXORROKAK - BALBULAK

Santiago auzoa - 18 postakutxa
Tel. 943 830 743
Fax. 943 134 634
E-mail: tmmanterola@euskalnet.net
20 810 ORIO - GIPUZKOA

TMM

AENOR
R
ISO 9002

Esferako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

» INKESTA

**Zenbat farola daude
Eusko Gudari kalean?**

Jaso ditugun erantzunetatik zuzena, **96** farola daudela da. Erantzun dutenetatik **%40k, 100** farola daudela esan du. Erantzun zuzena **%29k** eman du.

**HURRENGO GALDERA****Zenbat haur erregistratu ziren
Orion joan den urtean?**

Erantzun ezazu www.karkara.com webgunean eta emaila 326. Karkaran argataratuko dugu.

» OSPAKIZUNA

**Zaraguetako baratze-tailerra**

LHko 2. zikloko ikasleek baratze-tailerra egiten dute Zaragueta Herri Eskolan. Ikasle-
en lana batez ere landareak landatzea, ureztatzea, belar txarrak kentzea, neurketak
egitea... izaten da. Ikasturtea hasten denerako ezinbestekoa izaten dute gurasoen la-
guntza, lanerako lurra prest izateko eta aurten erantzun ona jaso dute. Haurrak bara-
tzeak duen garrantziaz jabetzea da 45 minutuko saioen helburua.

» ZORIONAK!

*Euskara
ikasleei*

Aspaldian ez bezala, Orioko Udalak eta AEKk elkarlanean antolatutako euskara ikastaroan aritzeko bi talde osatu dituzte aurtengoan: euskaraz ikasten zerotik hasiko direnek osatua bat; eta euskaraz alfabetatzea eta EGA ateratzea helburu duten lagunek osatua, bigarrena.

Euskararen arnagunea den Orio bezalako herri batean ere euskararen erabilerak behera egin duenez –hala dio azkena egindako neurketak– poztetkoea da horrelako berriak jasotzea. Euskararen normalizazioan ezinbesteko lana egiten dute euskaltegiek, eta bide horretan jarrai dezaten animatu nahi ditugu bai AEK eta baita gainerakoak ere, zorionak emanez.

TANATORIO ZARAUZ
EUROFUNERARIAS TALDEA
Hileta eta zerbitzu orokorrak

- * Donostia eta probintziako ospitaleetara
- * Aldi oroko zerbitzua
- * Belatorio gelak
- * Koroaiak, eskelak, tramitazioak...

Araba kalea, 35 Zarauz
Tel: 943 89 49 37 / Fax: 943 89 49 43
e-mail: harrespil@harrespil.net

Orioko Herri Ikastola
Guraso Kooperatiba
ABESLARI KALEA, 8
TEL: 943 83 47 04
FAX: 943 13 09 38
orio@ikastola.net
www.oriokoikastola.net

Sukalde eta bainuen erreformak
XANTI MUJIKA
Igeltseritza
699 46 76 21
943 13 10 37

azkue
Tf: 943 13 04 38

Zaragueta Herri Eskola orio
telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezuntza.net

“Ez naiz Zaldibiara itzuliko, Orion lehenengo egunetik nago gustora”

Maria Dolores Urretabizkaia

Dendaria

Duela 44 urte etorri zen Zaldibiatik Maria Dolores Urretabizkaia Oriora. Leunda okindegiaren kargu egin da urte hauetan guztietan, baina erretiroa hartzeko garaia iritsi zaio. Arantxa Arrillagari utziko dio denda azaroaren 1ean.

IKER GURRUTXAGA

Noiz hasi zinen Orion ogia saltzen?

Lehenengo egunetik dendan izan nintzen. Oriora ezkondu nintzen, eta senarra okina zenez, bertan hasi nintzen lanean. Ez zegoen beste erremediorik!

Herritarren harrera ona izan al zen?

Beti esan izan dut Zaldibiara ez nintzatekeela itzuliko. Estraineko egunetik nago gustura Orion, eta edozein bezerok entzun izan dit bertan geratu nahi dudala betiko. Oriotarrak oso atseginak dira, Zaldibiako jendea baino zakartxeagoa bada ere; batez ere arrantzale jendea. Baina jende noblea da oso.

Lokala ere aldatu duzu behin baino gehiagotan.

Bai, egia da. Orain Aterpe dagoeneko horretan hasi nintzen lanean, eta bertan

pasa ditut urterik gehienak. Baina, egun batean, bota egin behar zutela esan ziguten. Ituraindarrek orain Kutixi dagoen tokian zuten lokalera pasa nintzen orduan, haiek hala eskaini zidatelako. Ana Mari ez zegoen ondo garai hartan, eta erretiroa hartu nahi zuenez, hantxe jarri nintzen ni. Handik orain nagoen tokira pasa nintzen. Oso eroso sentitu naiz toki honetan, eta Ituraindarren lokala salmentan ikusi nuenean, bi aldiz pentsatu banuen ere, bertan jarraitzea erabaki nuen.

Zenbat aldatu da Orio 44 urte hauetan?

Arrantzatik bizi zen herria Oriora etorri nintzenean. Izugarria zen bertako arrantzaleen maila, eta haiekin egiten nuen lan asko. Gainontzean, erosketa handiak egitera Eroski eta halakoetara joaten da herritarra, baina erosketa txi-

kiak gurea bezalako dendetan egiten dituzte askok; nirea bezalako negozioak beharrezkoak dira eta izango dira Orio bezalako herri batean. Letxuga, toma-tea, porrua... egunero eskura behar diren gauzak ditugu gure dendan.

Bezero finko asko al daukazu?

Arantxak ere ikusiko du baietz. Egia boro-bila esango dut: 44 urte hauetan hutsik egin ez didan bezero bat baino gehiago izan dut. Eta huts egin duten egunetan, justifikatu egin didate, inongo beharrik gabe.

Amaz bezala hartu zaituzte orduan.

Gaizki pasa izan dut behin baino gehiagotan –begiak bete zaizkio–. Etxekotzat izan naute askok eta nik ere hala izan ditut bezero asko, baina batzuk hiltzen joan dira. Zuk 40 urtean egunero ogia saltzen diozun hori, etxekotzat hartzen duzu. Haiek zuri beren istorioak kontatzen dizkizute eta zuk haiei ere bai. Horrenbesteko konplizitate mailara iristen gara azkenean.

Nolatan hartu duzu erretiratzeke erabakia?

Arantxaren ahizpa etorri zitzaidan erretiratzeko nintzenean denda hartuko lukezela esanaz, baina ordura arte ez nintzen horretan pentsatzen jarri. Dena dela, preferentzia gorde nien. Atzetik beste batzuk ere etorri zitzaizkidan galdezka. Baina lehenengoek hartu nahi izan dute, eta haien eskuetan utziko dut denda. Urte bukaera arte nahi nion eutsi dendari, baina patrikak agintzen du hemen, eta urriaren 31n esango diot agur nire dendari. Jakin badakite Maria Dolores inguruan izango dutela beti, behar duten guztietan izango dutela nire laguntza. Eta herritarrek, bada, nire esker ona jaso dezatela. Hainbeste urte eta gero, oriotarrei benetan eskertu nahi diet eman didaten guztia.

Gogorra egingo al zaizu denda uztea?

Bada, hainbesterako ez dela izango pentsatzen dut, baina seguru nago behin baino gehiagotan gerturatuko naizela bisitan dendara. Horrenbeste urtetan egunero egin dudana zerbait izan da, eta orain zaila egingo zait lanik gabe egotea. Gainera, hona etorri aurretik gauza bera egiten nuen Zaldibian. Tabernan eta dendan egiten nuen lan. Hemendik aurrera deskantsatu egingo dut, edo horretan saiatuko naiz, behintzat. Ea Arantxak ere horrenbeste urte irauten duen!



KARKARA

» AZOKA

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Alokatzeko

■ Pisua alokatzeko Aian, Andatza auzoan. Garajea eta igogailua ditu. Merke. Tf.:660 893 220 (Manolo).

■ Neska batek logela bat alokatuko luke Orion. Tf.:627 164 750

■ Etxebizitza berria alokatzeko Aian. Hiru logela, bi bainugela eta garajea ditu. Tf.: 629 680 410

■ Orion garajea saltzeko edo alokagai. Antilla-Hondartza kalean. Tf.:650 340 544.

■ Etxea emango nuke alokairuan. Loft eraiko. Baratz eta terrazarekin. Modu berezian bizitzeko. 750 euro.Tf.: 600 301 350.

■ Etxebizitza alokatzeko Eusko Gudari kalean. 3 logela.Tf.: 943 83 88 97

(Mari Karmen).

■ Etxebizitza alokatzeko Orioko erdigunean. Tf.: 696 332 880 (Jone).

Lan eskaera

■ Emakumea aste bukaretan lan egiteko prest. Garbiketa lanetan eta adinekoan zein umeak zaintzen. Tf.: 638 602 555.

■ 22 urteko neska LHko ikasleei eskola partikularrak emateko prest. Ingelesa ere bai. Tf.: 627 411 164.

■ 22 urteko neska LH eta DBHko ikasleei eskola partikularrak emateko prest. Tf.: 653 724 570.

■ Neska lan bila. Erreferentziekin. Tf.: 697 650 519 (Marina).

■ Gizon gaztea esperientzia eta erreferentziekin,

adinekoak zaintzeko prest. Bestalde, ordenagailuak ere konpontzen ditut. Tf.: 659 810 396 (Danil).

Erosteke

■ Macintosh ordenagailua erosiko nuke. Mahai gainekoa. Tf.: 637 836 663 (Saioa).

Aurkitutakoak

■ Arrosa koloreko haurren patinete bat aurkitu nuen Arrantzale kalean, Kutxa inguruan. Minniren argazkia du. Jasotzeko, 943 834 248 zenbakira deitu (21:00etatik aurrera).

■ Piaggio motoaren giltza aurkitu da Kultur Etxean. Galdu duena handik pasadadila.

» ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
6	02:58 eta 15:16	08:53 eta 21:21	
27	03:42 eta 15:58	09:38 eta 22:00	
28	03:19 eta 15:35	09:16 eta 21:34	
29	03:52 eta 16:08	09:51 eta 22:07	
30	04:24 eta 16:40	10:25 eta 22:39	
31	04:54 eta 17:11	10:58 eta 23:11	
01	05:25 eta 17:43	11:32 eta 23:44	
02	05:57 eta 18:16	12:07 eta _____	
03	06:30 eta 18:51	00:18 eta 12:44	
04	07:07 eta 19:32	00:55 eta 13:25	
05	07:50 eta 20:21	01:37 eta 14:13	
06	08:44 eta 21:25	02:28 eta 15:11	
07	09:52 eta 22:41	03:31 eta 16:20	
08	11:08 eta 23:54	04:44 eta 17:30	
09	12:17 eta _____	05:54 eta 18:33	

» ZAINTZAKO BOTIKAK

URRIA

- 26an, Zulaika.
 - 27 eta 28an, Gallo.
 - 29an, Iriarte.
 - 30ean, Gallo.
 - 3in, Azaldegia.
- AZAROA
- 1ean, Etxeberria.
 - 2an, Iriarte.
 - 3an eta 4an, Larrañaga.
 - 5ean, Gallo.
 - 6an, Azaldegia.
 - 7an, Zulaika.
 - 8an, Iriarte.
 - 9an, Larrañaga.
- Gaueko zaintza: Zulaika

- **Azaldegia:** Urdaneta kalea, 8. 943 13 31 83 Zarautz
- **Etxeberria:** Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz
- **Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz
- **Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz
- **Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orrio
- **G. Artifiano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz
- **Iriarte:** Zinkunegi, Pilar txo Enea. 943 13 29 83 Zarautz
- **Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

» TREN ORDUTEGIAK

DONOSTIA-ZARAUTZ

Donostia	5:47	6:17	6:47	7:17	7:47	8:17	8:47	9:47	10:47	11:47	12:17	12:47	13:17	13:47	14:17	14:47	15:17	15:47	16:17	16:47	17:17	17:47	18:17	18:47	19:17	19:47	20:47	21:47
Aia-Orio	6:14	6:44	7:14	7:44	8:14	8:44	9:14	10:14	11:14	12:14	13:14	13:44	14:14	14:44	15:14	15:44	16:14	16:44	17:14	17:44	18:14	18:44	19:14	19:44	20:14	21:14	22:14	
Zarautz	6:20	6:50	7:20	7:50	8:20	8:50	9:20	10:20	11:20	12:20	13:20	14:20	15:20	16:20	17:20	18:20	19:20	20:20	21:20	22:20								

ZARAUTZ-DONOSTIA

Zarautz	6:08	6:38	7:08	7:38	8:08	8:38	9:08	10:08	11:08	12:08	13:08	14:08	15:08	16:08	17:08	18:08	19:08	20:08	21:08
Donostia	6:39	7:09	7:39	8:09	8:39	9:09	9:39	10:39	11:39	12:39	13:39	14:39	15:39	16:39	17:39	18:39	19:39	20:39	21:39

Bidali ezazu zure albistea!

ZUZENEAN!!!

karkara.com

IGLESIAS SARRILAGILEAK

24 orduko zerbitzua

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesias@karkara.com

- ATEAK irekitzen ditugu
- SARRAILA-ILARGI ALDAKETAK
- ATEAK IXTEKO MALOQUIEN ALDAKETA
- KOMUNITATEENTZAKO ZERBITZUA

tel/fax: 943 89 00 69
Bizkaia kalea, 4 20.800 ZARAUTZ

URBIDE

ITURGINTZA_BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA

URANGA

burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Teletax: 943 832 36 Eusko Gudari, 5

RAMIRO argazkiak

www.fotoramiro.com
fotoramiro@fotoramiro.com

610 69 76 68
943 83 10 48



Udazkena lorategi botanikoan

Pagoetako parke naturalean hainbat ekintza berezi antolatu dituzte udazkenerako. Baserriko produktuak, Pagoetako animaliak eta erlauntzak ezagutzeko aukera izan ondoren, *Udazkena Iturrarango lorategi botanikoan* saioa izango da azaroaren 3an, 11:00etatik 13:30era, lorategiaren fundatzaile Paco Garinek gidatuta. Helduek bosna euro ordaindu beharko dituzte eta 5 eta 12 urte arteko umeek, hiruna euro.

Aia

Erromeriak

■ Andatza auzoko erromeriak. Urriaren 28an, igandean, J.L. Laja eta Unai Narbaiza trikitilariekin. Azaroaren 1ean, ostegunean, Astiazaran II.a, Izer eta Lutxurdiorekin. Antolatzailea Andatzako Erromeria Elkarteak. 18:30etik 21:30era, Aristerrazu plazan.

Urdanetako festak

■ Azaroaren 4an, erretiratuenguna. 11:30ean, meza nagusia. 12:00etan, eskuz binakako eta palaz banakako pilota partiden finalak. 13:00etan, herri kirolak: Mikel Lopetegi, Xabat, Jagoba Otaegi eta Jakes harrijasotzaileen erakustaldia izango da, Urdangarin eta Julio Soto bertsoariak eta Astiazaran anaiak trikitilariak girotuta. Gero, auzoko nagusiekin bazkaria, Urdanetako Indamendi elkarteak. Bazkalostean, bertso eta trikitixa saioa edadetuentzat eta elkartera azaltzen direnentzat. 18:30ak aldera, auzoko kalejira tabernaz taberna bertsoak entzun eta dantza eginez. 22:30ean Ximorren Astiazaran anaiak.

Orio

Mandalara astea

■ Urriaren 27an. Yoga, Yesica Moralesekin, 10:30ean; Chikung CFQ, Alex Arellanorekin, 12:00etan; Intuzio eta energia tailerra, Alex Arellanorekin, 17:00etan; Zine foruma, *La educación prohibida*, 19:00etan. Urriaren 28an. Kontzientziaren mandalak, Joshua S. Santosekin, 10:30ean; Antzinako zibilizazioak eta mandalak, Joshua S. Santosekin, 12:00etan; Bizkar eskola -postura tailerra-, Mirentxu Gozategirekin, 17:00etan; Konektatu zure barruarekin soinuaren bidez, Mandalarekin, 19:00etan. Ekitaldi guztiak Mandalara elkartearen lokal berrian izango dira: Antxiola, 15 behea. Denak doan dira.

Traste zaharrak

■ Urriaren 31n, traste zaharren bilketa ohiko zabor ontzien ondoan. Aurrez udal-etxera deitu behar da zein traste botako duzuen jakinaraziz. Tf.: 943 83 03 46.

Bingoa

■ Urriaren 31n eta azaroaren 7an, bingo saioa, Zaharren Babeslekuak antolatuta. 16:30etik 18:30era, Kultur Etxeko areto nagusian.

Ikastaroak

■ Sabel-dantza ikastaroa. 30 euro hilean. Ostegunetan, 09:30etik 11:00etara, Kosta Tailerrean.
■ Gaztetxoentzako dantza ikastaroak. 12 eta 16 urte artekoentzat, asteazkenetan, 16:45etik 18:15era, 25 euro hilean; 9 eta 12 urte artekoentzat, ostegunetan, 16:05etik

17:05era, 20 euro hilean; 5 eta 8 urte artekoentzat, ostegunetan, 17:05etik 18:30era, 25 euro hilean. Kosta Tailerrean. Irakaslea: Warda Mallal Izena emateko edo informazio gehiago jasotzeko: 637 256 851 telefono zenbakira deitu edo idatzi helbide honetara: ouarda@hotmail.com
■ Azaroaren 10etik abenduaren 2ra. Ur sorospen ikastaroa. Matrikula: 200 euro. Larunbatetan 09:00etatik 13:00etara eta 15:00etatik 19:00etara Azpeitiko kiroldegian eta DYako egoitzan. Informazioa eta izen-ematea 943 46 46 22 zenbakian.

Informatika

■ Urriaren 29an, 09:00etatik 13:00etara eta azaroaren 5ean 16:00etatik 20:00etara egongo da dinamizatzailea KZ gunean, Kultur Etxean.

Goxotasun bila?

KONFIDANTZAZKO PROFESIONALETAN PENTSATU



> Instalazio Osoa:



- Hormako Gas Galdara, NOx Gutxikoa (fatxadara atera ahal izateko tximenea).
- 5 Unitate, Aluminiozko Berogailuak.
- Termostato Digitala.
- Barneko instalazioa egiteko materiala (kuprezko hodiak, giltzak, etabar.).
- Barneko Gas Instalazioa Galdara arte.
- Instalazio guztiaren legalizazioa.

 **FORMAT 25 BF LOW NOx: 2.950 €* + BEZ**

 **FE-25 LOW NOx: 3.290 €* + BEZ**

 **JUNKERS**

ZWN24-7MFA

 **Vaillant**

VMW ES 255/4-7

3.480 €* + BEZ

 **Saunier Duval**

THEMA F25

***Finantziazio aukera desberdinak (6 hilabete interesik gabe, adibidez).**

Gure Berezitasunak:

Instalazio Indibidualak
Instalazio Komutarioak
Eguzki panelak
Geotermia-Aerotermia
Klimatizazioa



Haize Egokitua
Kogenerazioa
Galdara Gelak
Energi Ikerketak
Eta abar...

Egigurentarren-18-Behea - 20600 - Eibar - **Telf.: 943 201 030**

Astigarragako Bidea-2, 5º Ezk. OF-7 - 20180 - Oiartzun - **Telf.: 943 100 767**